313 zenbakia. 1998ko otsailak 27. JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

# Berrigara



# Elkoro eta Etxaniz

## Gindarik gabeko pastela

RB
RAMON BASTIDA

LARUNBAT
ARRATSALDEEETAN
IREKITA

xey
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK



Ibargarai 11-13 BERGARA Telefonoa eta faxa: 76 70 58



# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 79 78 10 Arrasate
Errioxa 17 Tf. 945-25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea babesteko gaude*



**902 202 502**

VENTANAS SAN MIGUEL

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**

# Mariaren Lagundia Ikastola

- Haur Hezkuntza (2-6 urte)
- Lehen Hezkuntza (6-12 urte)
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)
- Heziketa Zikloak
  - Osasuna (Sanitarioa)
  - Eskaintza Soziokulturalak eta Komunitatearentzakoak
- Bestelako zerbitzuak
  - Jangela
  - Eguerdian haurtzandegia
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Psikologia zerbitzua
  - Eta abar

*Haur hezkuntzarako,*
*Lehen Hezkuntzarako*
*eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako*
***aurrematrikulazio epea otsailaren 26tik martxoaren 13ra***

Mariaren Lagundia Ikastola, Espoloia 1. Tf. 76 25 40. Matrikula orduak, 9:30-13:00 eta 16:30-18:30.



# Titanic

**Maite Mozos** / Irakaslea

Dagoeneko ez da egongo pelikula hau ikusi ez duenik. Novedades aretoa gainezka egon da. Zinetokitik aspaldi, urtetan agertu ez direnek oraingo honetan aretoak bete dituzte. Era guztietako pertsonek hiru orduko luzemetraia eserita pairatu dute (palomita, kokakola etabarrekin lagunduta, noski), eta hau guztia Euskal Herrian, Frantzian, EEBBetan, Argentinan, Errusian edo Txinan. Hain da eraginkorra publizitatea! Jadanik, produktoreek jarritako dirutza berreskuratu dute eta hau gutxi balitz, zine munduan dagoen saririk garrantzitsuenetakoa lortzeko bidean dago "Titanic".

Bai, aitortzen dut, ni neu ere, publizitate sare horretan erori nintzela. Hasiera batean ez nuen ikusteko asmorik. Gehiago esango nuke, gorroto nion kanpaina ergel horri. Alde guztietatik "Titanic": irratian pelikulako musika; aldizkarietan protagonisten irudiak; egunkarietan ikusleen ranking-a... horrela ezin libratu, eta erori egin nintzen. Denok, artalde bagina bezalaxe, artzai publizitateari jarraituz.

Oso zinezalea naiz eta ez dut inoiz halakorik ikusi Novedadesen: hura zen giroa! Han hemenka gazteen hasperenak sumatzen ziren DiCaprio aktorea ateratzen zen bakoitzean; gozokien poltsen hotsak nonahi eta oso modan dagoen "laser" boligrafo horietako pantailan zehar ingurua gehiago berotzen. Gazteetako kontuekin akordatu nintzen, Seminarioko zinera joaten ginen garaikoak...

Hala ere, ez naiz damutzen joan izanagatik. Merezi zuen. Oso pelikula ona iruditu zitzaidan, egungo aurrerapen guztiak aprobetxatuz egina. Zoragarria bai, baina baita luze samarra ere, batez ere amodiozko kontu erromantiko hori. Izan ere, irudi xarmantagarriz osatua dago: portuko olesak, itsasontzia martxan jartzen zenean, bertatik bidaialariek agurtzen zutenean; edota galdara geletako eszenak, txundigarriak ziren. Barneko giroak garai hartako gizarte maila ezberdinak isladatzen zituen, lehen mundu gerra baino bi urte lehenagokoa. Bestalde, protagonistei buruz, gauza berri gutxi aipatuko nuke: gaztea, behar den moduan, oso pertsonaia erromantikoa da; ez dauka ezer baina dena lortzeko gauza da; neska, bere bihotza piztuko duen nonbaiten bila dabil; honen nobixua gaiztoa baino gaiztoagoa.

*"Bai, aitortzen dut, ni neu ere, publizitate sare horretan erori nintzela. Hasiera batean ez nuen ikusteko inongo asmorik. Gehiago esango nuke, gorroto nion kanpaina ergel horri"*

Azkenik iritsi zen irrikaz espero genuen unea: izeberg-a "usaindu" ez eta bat batean gainean dago, ezin da ezer egin eta ez daude txalupak denontzat, beranduegi da. Gizonen amets ederrak bertan behera geratuko dira, bidaiuntzi erraldoiak huts egiten du izotz mendi horren kontra. Berriro ere, natura garaile eta gizakiak larruarekin ordaindu behar izan du bere harrokeria. B

## barruan




**Migel Lazpiur**
Enpresarioa

***"Lan gutxiago egiten badugu ez diogu konpetibitateari eutsiko"***

8. orrialdean.



**Jokin Etxaniz**
Pilotaria

***"Gure jarraitzaileei eskerrak eman nahi dizkiegu, oso giro ona izan baitzen finalean"***

17. orrialdean.



**Teresa Gamendia**
Mapfreko langilea

***"Besteengan gehien baloratzen dudana fideltasuna da; Txinara egingo nuke bidaia"***

29. orrialdean.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1913.*** Otsailaren 23an, Labegaraietako eskola eta kapilla berria inauguratu zituen Zerrajerak. Fabrikaren inguruan auzoa osatzen zihoanez, langileek eskatuta, 4 urtetik 8 urtera bitartekoentzako eskola jarri zen. Akei baserrian ipini zuten eskola. 1956an, oraingo Labegaraietako eliza eraiki zen.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1656.*** Otsailaren 26an, Katoliko ez ziren Ingelesak Bizkaitik botatzeko agindu zuen Felipe II.ak.

***1766.*** Otsailaren 27an, Irun eta Hondarribia banandu ziren.

***1903.*** Otsailaren 24an, Diario de Navarra egunkaria sortu zen.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1965.*** Otsailaren 21ean, Malcom X beltzen buruzagia hil zuten.

## zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 20**
1-4-13-23-26-44 (osag.41/er.7)

**Astelehena 23**
1-2-12-27-42-45 (osag.14/er.9)

**Martitzena 24**
5-18-21-22-27-32 (osag.48/er.6)

**Eguaztena 25**
4-28-31-33-34-48 (osag.46/er.3)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 21**
17-18-23-29-33-47 (osag.8/er.8)

**Domeka 22** ***Gordoa***
14-16-30-36-38-40 (osag.26/er.0)

**ONCE**

**Eguakitza 20:** 28.732 (K. seriea: 136)
**Astelehena 23:** 46.983
**Martitzena 24:** 72.619
**Eguaztena 25:** 04.273

**BESTE BATZUK**

**Bedelkarreko harakinak:** 6.983

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Eguraldi kaskarra izango dugu asteburuan: zapatuan hodeiak izango dira nagusi eta euria egingo du tarteka. Domekan ez da aldaketarik izango, baina tenperaturak behera egingo du; 800 metrotik gora elurra egin dezake.

## Ilargiaren aldiak

Ilgora: Martxoak 5
Ilbete: Martxoak 13
Ilbehera: Martxoak 21
Ilberri: Martxoak 28

## Eguzkia

*Domekan*

Sortu: 07:50

Gorde: 19:09

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 19** | 23 | 3 | - |
| **Eguakitza 20** | 20 | 6 | - |
| **Zapatua 21** | 16 | 6 | *8,4* |
| **Domeka 22** | 9 | 4 | *39,6* |
| **Astelehena 23** | 9 | 6 | *14,4* |
| **Martitzena 24** | 11 | 6 | *0,8* |
| **Eguaztena 25** | 11 | 6 | *0,1* |

## farmaziak

**Eguakitza 27**
CAMACHO. 22:00ak arte
*Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.*
IRIZAR. 22:00etatik aurrera
*Erguin 11, Arrasate. Tf. 79 12 39*

**Zapatua 28**
PUY. 22:00ak arte
*Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.*
AMEZUA. 22:00etatik aurrera
*Sta. Marina 32, Arrasate. Tf. 79 09 74*

**Domeka 1**
PUY.
*Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.*

**Astelehena 2**
GUALLAR.
*San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.*

**Martitzena 3**
ESTELLA.
*Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.*

**Eguaztena 4**
MOZOS.
*San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.*

**Eguena 5**
CAMACHO.
*Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.*

## ogia

**Domeka 1:** Ogizun.

# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Alzheimerraren aurka, salbia

Londreseko King's College-ko zientifikoek adierazi dutenez, salbia landarea Alzheimer gaitzaren ondorioak biguntzeko baliagarri izan liteke. Itxura denez, salbiaren oinarrizko oliotik erauzitako osagaietako batek burmuinaren mezulari kimiko garrantzitsuenetako baten deskonposaketa sahiesteko ahalmena du. Hain zuzen ere, mezulari kimiko horren gabeziak eragiten ditu memoria galera eta eguneroko aktibitateak burutzeko gaitasun eza.

## Telefonoak

**Osasuna / Larrialdiak**

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 008 |
| DYA | 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 76 55 76 |
| Larrialdiak | 76 12 94 |
| Anbulatorioa (txanda) | 76 24 40 |
| Anbulantzia | 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 77 91 06 |
| Ertzaintza | 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 79 53 00 |
| Asepeyo | 76 16 43 |
| Pakea | 76 13 49 |
| Alcer | 76 12 62 |
| Angiozarko medikua | 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 76 62 23 |
| HIES Ekimena | 79 26 99 |
| Odol emaleak | 76 16 24 |

**Garraioak**

| | |
|---|---|
| Euskotren | 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 76 19 50 |
| RENFE | 28 35 99 |

**Udala**

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 77 91 32 |
| Euskara Zerbitzua | 77 91 66 |
| Igerilekuak | 76 20 51 |
| Kirol Zerbitzua | 77 91 67 |
| Kultur Etxea | 77 91 58 |
| Liburutegia | 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 76 13 68 |

**Prentsa berriemaleak**

| | |
|---|---|
| Berrigara | 76 03 97 |
| Egin | 76 45 52 |
| El Correo | 76 10 90 |
| El Diario Vasco | 76 81 57 |
| Extra | 79 82 68 |

**Bestelakoak**

| | |
|---|---|
| Bedelkar | 76 04 68 |
| Epaitegia | 76 14 92 |
| Erregistroa | 76 13 15 |
| Jardun | 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 76 21 40 |
| Mendi Nekazaritza | 76 25 47 |
| Musika Eskola | 76 57 80 |
| Notaritza | 76 10 73 |
| Postetxea | 76 26 85 |
| Xipizaro ludoteka | 76 23 76 |

# zorion agurrak



**Iraia Olivas**
Martxoaren 5ean 5 urte. Zorionak! Maitane eta gurasoak.



**Garbiñe Oruesagasti**
Martxoaren 2an beteko ditu urteak. Zorionak! Koadrila.



**Maddi Elortza**
Martxoaren 1ean 2 urte. Zorionak etxeko guztien partez!



**Ander Zangitu**
Martxoaren 5ean 8 urte. Zorionak familiakoen partez!

# bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

## Amabirjina Garotako

Amabirjiña Garotakua edo Garotako Amabirjiña ere bai. Urriak 12, Pilarika Eguna. Egun honetan bildu ohi zen baserriko familia guztia, lantegian zebiltzanak eta jai izaten baitzuten, garotan egiteko.

*- Iez be Amabirjiña Garotakuan kuadrila ederra juntau giñañ basuan.*
*- Amabirjiña Garotako, egun seiñalaua izaten zuan basarrixan.*






**Irene Larrañaga Gomez**
Otsailaren 26an 6 urte. Zorionak familiaren partez!



**Maialen Odriozola**
Otsailaren 24an 6 urte. Zorionak! Gurasoak eta Nerea.



**Jon Yera**
Otsailaren 24an 10 urte. Zorionak familiaren partez!



**Ugaitz Iruretagoiena**
Otsailaren 28an 8 urte. Zorionak! Aitatxo eta amatxo.



**Jose Felix de Benito**
Otsailaren 28an 38 urte. Zorionak etxekoen partez!



**Gorka Rodriguez**
Otsailaren 28an 7 urte. Zorionak Gorka!



**Gorka Eguren**
Otsailaren 23an 14 urte. Zorionak familiaren partez!



**Itsaso Garmendia**
Otsailaren 27an 7 urte. Zorionak zure lehengusinen partez!



**Izar Morillas**
Otsailaren 5ean 2 urte. Zorionak zure ahizpa Aneren partez!



**Mikel Agirre**
Otsailaren 23an 2 urte. Zorionak senideen partez!



**Felix Ormazabal**
Otsailaren 26an 87 urte. Zorionak! Maria Josefa, Nerea eta familia.



**Eneko Unamuno Ruiz**
Martxoaren 2an 8 urte. Zorionak! Unai eta gurasoak.



**Manolo Prieto**
Otsailaren 4an 41 urte. Zorionak emaztearen eta Johnen partez!



**Nuria Sanchez**
Otsailaren 25ean 22 urte. Zorionak! Lagun, ama puntako eta lehengusuak.



**Maite Bolibar**
Otsailaren 28an 12 urte. Zorionak familiakoen partez!



**Asier Martin**
Otsailaren 23an 17 urte. Zorionak koadrilakoen partez!



**Juan Mari Igarza**
Otsailaren 26an 37 urte. Zorionak Bego eta Leireren partez!



**Nerea Trompeta**
Otsailaren 26an 22 urte. Zorionak gurasoen partez!



**Imanol Berroia**
Martxoaren 5ean 7 urte. Zorionak sendikoen eta lagunen partez!



**Elaia Iñurrategi**
Otsailaren 25ean 14 urte. Zorionak Aitzol, Irati eta Maialenen partez!



**Iosu Gantxegi**
Otsailaren 20an 10 urte. Zorionak familiaren partez!



**Andoni Arrieta Laskurain**
Otsailaren 21ean 16 urte. Zorionak koadrilakoen partez!



**Andoni Zabalo**
Otsailaren 27an 5 urte. Zorionak Goioren eta Balenen partez!



**Matias Atorrasagasti**
Otsailaren 24an 78 urte. Zorionak Barbasen partez!



**Ion Soto Foronda**
Otsailaren 25ean 10 urte. Zorionak familiaren partez!



**Noemi Sanchez**
Otsailaren 24an 7 urte. Zorionak etxekoen partez!



**Jose Mari Lenisoro**
Otsailaren 26an 42 urte. Zorionak! Hodei eta Aitzol.



**Nerea Jauregi**
Otsailaren 24an 31 urte. Zorionak Amilotxeko lagunen partez!

## jaiotakoak

**BERGARA**
**Aritz Oyarzabal Puertas**
Otsailak 13
**Jokin Gutierrez Zenitagoia**
Otsailak 18
**Eider Moncayola Goiti**
Otsailak 21
**ANTZUOLA**
**Amaia Longares Alvarez**
Otsailak 20

## hildakoak

**BERGARA**
**Emilia Orellana Rajado**
Otsailak 18, 70 urte
**Placido Urriategi Maiztegi**
Otsailak 20, 81 urte
**ANTZUOLA**
**Maria Larrañaga Enekotegi**
Otsailak 22, 85 urte

## mezak

**Santa Marina**
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
**San Pedro**
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
**Osintxu**
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
**Elosu**
Domekak: 10:00.
**Ubera**
Domekak: 10:30.
**San Juan**
Domekak: 11:00.
**Basalgo**
Domekak: 13:00.
**San Prudentzio**
Domekak: 10:30.
**Labegaraieta**
Domekak: 11:00.
**San Lorentzo**
Zapatuak: 20:00.
**Angiozar**
Domekak: 10:30.
Eguakitza: 19:00.
**Monja Zaharrak**
Domekak: 19:30.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
**Mizpirualde**
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
**Mariaren Lagundia**
Domekak: 10:00.
Zapatuak eta lanegunak: 09:00.
**Antzuola**
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
**Uzarraga**
Domeka: 10:00.

# ANTZERKIA

▶ **Melody sisters** taldearen "Con lo puesto" antzezlana, martxoaren 7an 22:30etan Arrasateko Amaia antzokian.

# ERAKUSKETAK

▶ **Berpizkunde hiritarra** Udaletxeko Pleno aretoan domekara arte. Zapatuan, 18:30-21:00etara eta domekan 11:30-14:00etara.

▶ **Dani Laskurain**en margoak Legazpiko Kultur Etxean martxoaren 6ra arte.

# IKASTAROAK

▶ **Islada Bideo Tailerra**k hainbat ikastaro antolatu ditu: bideo sarrera ikastaroa (martxoaren 24tik maiatzaren 8ra), gidoilaritza (uztailaren 6tik 21era) eta edizio ikastaroa (urriaren 23tik azaroaren 27ra). Argibideak Kultur Etxeko bideo gelan.

▶ **Fandango** eta arin-arin ikastaroa martxoaren 2tik ekainaren 15era, astelehenetan 19:00etatik 20:30etara Kartzela Zaharrean. Irakaslea: Amaia Agirre. 76 36 61.

▶ **Saltsa** eta merenge ikastaroak martxoaren 3tik udara arte Jam aretoan, astelehen eta eguenetan 19:30etatik 20:30etara edo 20:30etatik 21:30etara. 76 35 81.

▶ **Sokorrismo** ikastaroak. Lehen sorospenei buruzko ikastaroa martxoaren 16an hasiko da eta uretako sokorristarena apirilaren 24an (honetarako beharrezkoa izango da aurrekoaren titulua izatea). Ikastaro bakoitzak 20.000 pezeta balio du eta biak eginez gero, 30.000 pezeta ordainduko dira. Izen ematea martxoaren 8a baino lehen.77 91 67.

KONTZERTUA

## *Zazpi eskale*

**Oñatiko Gaztelekuan**
*Noiz: zapatuan, 22:30etan*
*Sarrera: 500 PTA.*

Karnabaletako "biharamonaren" ostean, Bergaran ekitaldirik ez dagoenez, Oñatin izango den kontzertu baten berri emango dizuegu aste honetako agendan. Zazpi eskale taldeak, Euskal Herrian zehar, "Barrenkaleko bluesak" diskoaren aurkezpen emanaldiekin jarraitzen du eta bihar zapatua Oñatiko Gaztelekuan izango dira. Azkenaldian Bergaran eta Soraluzen ere izan dugu Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Josu Zabalaren taldea; Jam aretoan edo Gaztelupen izan direnek taldeak musikatutako bertsoekin gozatu dute eta dagoeneko badira jendeak ondo baino hobeto ezagutzen dituen abestiak, "Morotik" eta "Bihar erretiratzen naiz betiko" esate baterako.

Bihar Oñatin "Barrenkaleko bluesak" diskan biltzen diren 12 kantak eta aurreko diskoko beste hainbat joko ditu Zazpi eskalek. Euren emanaldietara joaten den ikuslegoarekin fusioa lortzea da talde honen ezaugarrietako bat eta horretarako Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariak jendeartean kantuan aritzen dira hainbat kantutan. Durangarrak bertsoak formula berri batez aurkezten saiatzen dira eta lortu dute bai publiko berezi bat erakartzea. Esku-soinua, bibolina, perkutsioa, baxu elektrikoa, kontrabaxua, txistua, danbolina edo turutez lagunduta, Unairen zein Igorren bertsoek indarra hartzen dute eta ikuslegoa segituan jartzen dute dantzan. Oñatira hurbiltzeko aitzakia ona... B



Gabonetan Bergaran izan genituen. Ikusi ez bazenituzten, Oñatin duzue aukera.

# LEHIAKETAK

▶ **Bergarako XIII. Literatur lehiaketa**. Adinaren arabera bost talde bereziztuko dira eta lanak apirilaren 22rako entregatu

**ZUBIETA**
*elektragintza*
MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.
Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48

PB
PINTURAS BERGARA S.L.
• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• APAINKETARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK
• ERROTULOAK
Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 76 10 65. Faxa: 76 11 40.

beharko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan. Argibideak bertan, 77 91 66.

# DEIAK

▶ **Bertso afaria** Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbiorekin martxoaren 7an 21:00etan Txuringon. Izen-ematea (2.500 pezeta) Osintxuko tabernetan.

▶ **Ipintza eta Miguel Altuna** institutuek, DBHko aurrematrikula zabaldu denez, dei egiten diete 12 eta 16 urte bitarteko gazteei eta gurasoei martitzenean, martxoak 3, 19:00etan Miguel Altuna berrian egingo den bilerara.

▶ **Bergarako zikloturisten irteera** Dorletara domekan, 9:15etan Plazatik.

▶ **Gorla Alpino**rekin eta Pol-Pol Mendizale Taldearekin Bizkargira irteera domekan. Irteera goizeko 7:30etan Frontoitik egingo da. Izen-ematea Pol-Poleko bulegoan, 76 48 51 telefonoan.

▶ **Formigalera** eski irteerak martxoaren 7 eta 8an eta martxoaren 19tik 22ra. Alpeetara irteera apirilaren 10etik 17ra. Argibideak eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoan (76 48 51), astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara.

▶ **Diputazioak** 65 urtetik gorakoei zuzendutako **termalismo programa** jarri du martxan. Aurten Zestoa, Arnedillo, Fitero eta Lierganes dira eskaintzen diren bainuetxeak. Argibideak 900 43 43 43 telefonoan.

▶ **Hitzaldia.** Eroskik antolatuta, Europear Batasuna eta Euroari buruzko hitzaldia martitzenean 7etan Kultur Etxean.

▶ **Gure Ametsa** elkartea San Antonio auzoko argazkiak biltzen ari da. Nahi dutenek euren argazkiak entregatu ditzakete elkartean bertan, egunero 19:00etatik aurrera.

▶ **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 4, 18:30etan Seminarioan.

# KINTADAK

▶ **1974**an jaiotakoen bazkaria martxoaren 14an. Euskadiko Kutxa irekitako kontuan 2.500 pezeta ingresatu beharko dira martxoaren 9a baino lehen.

▶ **1958tik 62ra** bitartean Angiozarren jaiotakoen afaria martxoaren 28an. 78 22 80 eta 76 54 81.

▶ **1964**an jaiotakoen bazkaria apirilaren 25ean. Argibideak Plazako kioskoan (Luke). Izen-ematea 1.000 pezeta.

## Z I N E A

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**
**Titanic**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka:17:00, 21:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.
**Llamando a las puertas del cielo**
Eguena, zine kluba: 20:00.
**Mozketa sakona**
Domeka: 11:30.

**ARRASATE. Alai zinema**
**L.A. Confidential**
Eguakitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 19:00, 21:30.
**George de la jungla**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**EIBAR. Unzaga**
**Mejor... imposible**
Eguakitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15

**EIBAR. Rialto**
**Mensajero del futuro**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 18:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 18:30, 22:15.

**OÑATI. Santana**
**Titanic**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 18:30, 22:30.
Astelehena: 18:30, 22:00.
**Mujeres insumisas**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ANTZUOLA. Gazinema**
**El paciente ingles**
Eguakitza: 22:00.
**En busca del valle encantado**
Domeka: 16:30.

**TITANIC**
***Zuzendaria**: James Cameron.*
***Aktoreak**: Leonardo DiCaprio eta Kate Winslet.*
Oscarretarako izendapen gehien izan dituen filmea. 1912ko apirilean, 1.500 bidaiari zeramatzan Titanic untzia itsasoratu zen. Ordutik, *Rose DeWitt Bukater* aristokraziako gaztea (Kate Winslet) eta *Jack Dawson* (Leonardo DiCaprio) abenturazalearen arteko amodioaren sekretuak itsas hondoan gorde dira...

**LLAMANDO A LAS PUERTAS DEL CIELO**
***Zuzendaria**: Thomas Jahn.*
***Aktoreak**: Til Schweiger eta Jan Josef liefers.*
Novedadesen bigarren aldiz iragarrita, Sitgeseko zinemaldian aurkeztu zen filme hau. Martin Brest (Til Schweiger aktorea) eta Rudi Wurlitzer (Jan Josef Liefers) bikotearen gorabeherak azaltzen zaizkigu. Biek gaisotasun larriak jasaten dituzte eta hiltzear daude.

**WALLACE & GROMIT MOZKETA SAKONA**
***Zuzendaria**: Nick Park.*
Joan zen urteko oscarretan marrazki bizidunetako laburmetraiarik onena (emanaldia beste hainbat lanekin osatuko da). Wallace eta Gromitek negozio bat ireki beharko dute gazta eta gailetak jaten jarraitu ahal izateko. Ardi batzuren desagerpenak nahastea ekarriko du...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak
GASTON Y DANIELA
Eta *orain* gazteendako, umeendako eta ume jaioberriendako *altzariak*
Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 76 07 37

**ARGI PLASTIC**
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, ateak, manparak...
**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**
Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# MIGEL LAZPIUR

## Lazpiur enpresako ugazaba eta gerentea

# *"Lan gutxiago egiten badugu ezin izango diogu eutsi konpetibitateari"*

**Lazpiur enpresak 25 urte bete berri ditu. Migel eta Agustin Lazpiur enpresaren ugazabak eta Josek, hauen aitak, ekin zioten fabrikazio mekanikoko 500 metro karratuko tailer batean. Gaur egun punta-puntan dago mundu mailan. Enpresako gerentearekin, Migel Lazpiurrekin izan gara.**

**G.** Nola hasi zineten orain dela 25 urte?

**E.** Hemengo enpresa sortu aurretik, gure aitak puntapaitzak egiteko tailer txiki bat zeukan eta nik lehenengo eta nire anaiak ondoren, eskola profesionaleko ikasketak amaitu genituenean burua berotu genion, gauza konplikatuagoak egiteko eta tailer mekaniko bezala hasteko. Bestalde, gure familiaren tradizio industriala aurreragotik dator: 1914. urtean Gipuzkoa aldizkarian probintziako herri guztien berri ematen da eta Bergarari dagokionez gure aitajaunaren enpresa, Jose Lazpiur y Cia, agertzen da Union Cerrajera eta Algodonerarekin batera. Gure aitajaunak mende hasieran ekin zion zapatagintzan. Harek mekanikarako zaletasun haundia zeukan eta bokazio hori familiako guztiok eduki dugula esango nuke.

**G.** Mundu mailan aurre aurrean egotera iritsi zarete.

**E.** Tailer mekaniko moduan hasi ginen eta teknologia dominatzen eta makinak diseinatzen ikasi dugun heinean aurrera egin dugu. Plazentzian egindako bigarren eskuko tornu batekin hasi ginen, hasieran, aita eta biok eta gero anaia; gaur egun 52 langile ditugu. Diseinu mekanikoa, elektrikoa, pneumatikoa, hidraulikoa, elktronikoa eta gaur egun informatikoa inkorporatzen joan gara.



Migel (argazkian) eta Agustin Lazpiurren enpresak 25 urte bete berri ditu.

**G.** Gaur egun zein da zuen iharduera nagusia?

**E.** Alde batetik, makinaria eta, bestetik, prezisioko utillajea, hau da, aeronautika eta automoziorako elementu mekanikoak. Produktua oso difertsifikatuta daukagu eta gure bezeroak Europa eta Amerikakoak dira, Estatu Batuetakoak batez ere.

***"Plazentzian egindako bigarren eskuko tornu batekin ekin genion aitak eta biok; gaur egun 52 langile ditugu enpresan"***

**G.** Euroaren atarian gaudenean, nola ikusten duzu etorkizuna?

**E.** Europako merkatuari ateak zabaltzea eta mugak kentzea guretako ona izan da. Halere, uste dut Euskal Herriko enpresa txiki guztiok defizit komertziala daukagula: orokorrean, produktu onak egiten ikasi dugu eta langile onak gara, baina ez daukagu produktua munduan zehar saltzeko ohiturarik. Horixe da hemengo industriaren erronkarik nagusia. Uste dut Euroa denontzat ona izango dela: guztiak moneta berdinarekin ibiltzea eta guztiontzat arau berdinak izatea ona izango da.

**G.** Lanpostu berriak sortzeko, astean 35 ordu lan egitea aldarrikatzen ari dira sindikatuak. Zer deritzou horri?

**E.** Nire ustez lan gutxiago egiten badugu ez diogu konpetitibitateari eutsiko eta horrela ez dugu aurrera egingo. Lana ondo egiten badugu eta klientea gustora lagatzen badugu, gero eta lan gehiago izango dugu. Lan kontratuak malguagoak izango balira eta kosto sozialak murriztuko bagenitu lanpostu gehiago sortuko lirateke eta lan gutxiago egitea baino neurri egokiagoa izango litzateke. Gure kasuan, behintzat, zenbat eta lan gehiago eta hobeto egin, lanpostu gehiago sortu ditugu. Kalitatea, zerbitzua eta prezioa, horiek dira gakoak.

**G.** Impreci zenaren lantegia erosi berri duzue.

**E.** Bai, 2.600 metro karratuko pabiloi zatia eta 8.000 metro karratuko lursaila erosi dugu. Pixkanaka lantegia haunditzen joango gara eta obrak egingo ditugu laister, baina dagoeneko bertako pabilioietan sei makina sartu ditugu.

# Barrenkalea, Goenkalea eta Artekalea multzo monumentalak

## Kale hauen balio arkeologikoa aitortu du Jaurlaritzak

**Goenkalea, Artekalea eta Barrenkalea multzo monumental izendatu ditu Jaurlaritzako Kultura Saileko Ondasun zuzendaritzak. XIII. mendean sortutakoak, Bergararen sorrerako kaleak dira.**



Goenkalea herriko gune arkeologiko izendatu du Eusko Jaurlaritzak.

Eusko Jaurlaritzako kultura departamenduak kale hauen balio arkeologikoa aitortu du eta ahalik eta egoera onenean gordetzeko babes neurriak hartuko ditu. Artekalea guztia, Goenkalea -San Pedro parrokia eta guzti- eta Barrenkalearen zati bat, Arrese etxetik San Martin plazaraino doana, dira balio arkeologikodun multzo monumental izendatu dituztenak.

### Teknikoen txostena

Izendapen honen ondorioz, etorkizunean kale horietan obrak egin behar badira txosten bat egin beharko da aurretik. Udaleko teknikoek egingo dute ikerketa eta txostena Diputaziora bidaliko dute. Ondoren, Diputazioko teknikoek erabakiko dute zorupean eskabazio arkeologikoak egin ala ez.

Proiektua etxeen jabeek eta Diputazioak ordainduko dute erdibana. Praktikan, zorupean edo eraikinen lurpean egin daitezkeen obretan eskatuko da bakarrik txostena. Honekin, lurpean dauden aspaldiko eraikinen aztarnak gorde nahi dira.

XIII. mendean Bergara sortu zenean, Barrenkalea, Goenkalea eta Artekaleakoak izan ziren eraiki ziren lehen etxeak. Harrezkero, mendeen poderioz, aldaketa ugari ezagutu dituzte eta suteak edota beste era batzutako hondamendiak jasan dituzte. Sorrerako etxe haien ordez, gaur egun ezagutzen ditugunak eraiki ziren. Halere, orohar, etxeen kokapenari dagokionez, multzo guztiak Erdi Aroko jatorrizko itxura gordetzen du gaur egun ere.

Multzo historiko honetako eraikin guztietatik bi dira gaur egun nabarmentzen direnak: alde batetik, San Pedro eliza eta, bestetik, Monja Zaharretako komentua.

Bestalde, Jaurlaritzako Euskal Kultur Ondasunaren legeak Bergaran ustezko 90 gune arkeologiko izendatu zituen iaz. Kale, auzune edota nekazal inguruneetako ermita, etxe eta baserriak dira gune arkeologiko hauek. 90 guneok Barrenkalea, Artekalea eta Goenkalea baino maila txikiagoko kalifikazioa daukate. B

**Izendapen honen ondorioz, etorkizunean kale horietako etxeen zorupean obrarik egin behar izanez gero, txosten bat aurkeztu beharko dute aurretik udal teknikariek Diputazioan**




Ibargarai kalean jartzen diren txorimaloak ikusmin haundia sortarazten dute herritarren artean.

# Erramu Zapatuko Txorimalo lehiaketa deitu du Jardunek

## Edozein adineko herritarrek har dezakete parte

Jarduneko Gazte Taldeak aurten ere Txorimalo lehiaketa antolatuko du Erramu Zapatu egunean. Aurten apirilaren 4an izango da eta ohizkoa den bezala Ibargarai kalean zehar jarriko dira, feria gunean, ganaduarekin batera.

Lehiaketa hiru taldetan banatuko da: lehenengoa, 14 urtetik beherakoentzat; bigarrena, 15 urtetik 60ra artekoentzat eta hirugarrena, 60 urtetik gorakoentzat. Taldeen arabera, honako sari hauek banatuko dira: lehenengo taldean, egun bateko bidaia irabazlearentzat. Bigarren taldean, 15.000 pezeta irabazlearentzat eta 10.000 bigarren sailkatzen denarentzat eta hirugarren taldean ere, 15.000 pezeta irabazlearentzat eta 10.000 bigarrenarentzat.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Jardunen (Kartzela Zaharrean) eman beharko dute izena apirilaren lehenengoa baino lehen, hau da, lehiaketa eguna baino hiru egun lehenago.

Lehiaketa orain dela bost bat urte hasi zen antolatzen txorimaloak egiteko ohitura galdua berreskuratzeko asmoz eta ikusmin haundia sortzen du herritarren artean. Lehiaketan edozein herritarrek har dezake parte, baina gaztetxoenak izaten dira parte hartzera animatzen direnak. B

## Hainbat eskaera egin dizkiote Oxirondo azokako saltzaileek Udalari

**Oxirondo** azokako saltzaileek hainbat eskaera egin dizkiote Udalari azoka plaza hobetzeko. Alde batetik, instalazioa eginda dagoenez, hari musikalean noiz emango duen alta Udalak galdetzen dute; musikak beste giro bat sortuko lukeela diote azokako saltzaileek. Bestalde, sarrerako ateek haize korronteak sortzen dituztela eta erosleak asko kexatzen ei direla. Azokan dituzten arazoen berri nori eman behar dioten, hau da, nor izango den udalaren ordezkaria ere galdetu dute saltzaileek. Bukatzeko, oraindik adjudikatu barik dauden postuak saltzeko ahalegin gehiago egitea eskatzen diote udalari eta zama lanetarako ranpek malda haundiegia dutela eta karga eramatea oso pisutsua egiten zaiela ere azaldu diote.

Horrelako kezken berri udaltzainei ematea eta saltzaile bakoitzak dituen kexak azaltzen ibiltzea ebitatzeko Batzorde bat eratzeko eskatu du Udalak. Batzordearekin biltzeko prest azaldu da Udala. B

AGOITZ
Tapizdenda
Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro 8 Tf.: 76 27 70 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00
☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

# Urteko ohiko batzar orokorra egin zuen Jardunek eguenean

**Jardun elkarteak** urteko ohiko batzar orokorra egin zuen joan zen eguenean Kartzela Zaharrean.

Alde batetik, 1997an zehar elkarteko talde bakoitzak egindakoaren balorazioa eta sarrera eta gastuen berri eman zen; bestetik, aurtengo urterako asmoak eta aurrekontua azaldu zitzaizkien bertan bildutakoei. Aurten, Jarduneko aurrekontua 19 milioi pezeta ingurukoa da eta Berrigarakoa, ostera, ia 31 milioi pezetakoa.



Iaz egindakoaren balorazioa egin eta aurtengo asmoen berri eman zen.

Bestalde, kuota igoera onartu zen eta zuzendaritza batzorde berriari onespena eman zitzaion. Batzar orokorrean Andoni Etxeberriak, Jarduneko presidenteak, kargua lagatzen duela aurreratu zen, hemendik aurrera Musika Eskolako presidentea izango baita. Azken urte hauetan Jardunen egindako lanagatik eskerrak eman zizkion elkartearen izenean, Gorka Elortzak, zuzendari orokorrak, Andoni Etxeberriari. B




## JENDE GUTXI ARATUZTEETAN

Aste honetan bolo bolo ibili den komentarioa Aratuzteetan beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili dela izan da. Halere, jaigiroa nagusi izan da, zapatu gauean eta martitzen arratsaldean batez ere. Bedelkarrek antolatutako mozorro lehiaketako saria, 25.000 pezeta, Aita Santuak Kubara egindako bidaiaren parodia egin zuen taldeak irabazi du aurten. Aranzadi ikastolako haurrek ere martitzen arratsaldean kolorez jantzi zituzten kaleak. B

## Jose Mari Etxaniz askatzea eskatu zen zapatuan

**Aurtengo otsailean** 18 urte kartzelan bete dituela eta, Jose Mari Etxaniz presoa lehenbailehen askatzea eskatzeko manifestazio ixila egin zen joan zen zapatuan herriko kaleetatik zehar. Manifestazioan herritar ugarik hartu zuten parte eta "Etxaniz etxera" esaldia zioen pankarta batek zabaltzen zuen. Honen tzetik, Bergarako presoen argazkiekin egindako kartelak zeramatzaten presoen senideek. Epaitegiaren aurrean zegoen



ertzain talde batek manifestazioa gertutik jarraitu zuen baina ez zen inolako istilurik gertatu. Manifestazioaren aurrean zihoan kotxe batek Etxanizen egoeraren berri eman zuen megafoniaren bitartez. Amaieran, Plazan "Eusko Gudariak" kantatu zen. B

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar 1 ☎ 76 42 41

Carmen Garate
Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...
Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 76 53 12

# Berrigara

313 zenbakia,
1998ko otsailak 27.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77**
**E.mail: berrigar@sendanet.es**
**Argtaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate. **Erredakzioa:** Edu Mendibil, Mikel Elkoroberezibar. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate. **Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo. **Banaketa:** Txantxangorri taldea. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia:
Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.



Copyright: BERRIGARA.



Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599



BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** | **Gipuzkoako Foru Aldundia** | **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**


## gutunak

**Iritzi, protesta edo desioren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### IRAK

Denok dakigunez, irakiar gatazka 1990. urtean hasi zen Kuwaiten okupazioarekin, Denbora oso laburrean EEBBek eta bere aliatuek, Espainia barne zelarik, guda hasi zuten Iraken aurka. EEBBentzat aitzaki ezin hobea izan zen bere azken aurrerapen militarrak praktikan jartzeko. Guda bukatu ondoren, Kuwait askatua izan zen eta Iraki enbargo ekonomikoa jartzen zaio, 8 urte igaro ondoren oraindik jarraitzen duelarik.

Enbargoaren helburu garrantzitsuenak, Sadam Jusein boteretik kentzea eta Irakek bere arma kimiko eta biologikoak suntsitzea zen; baina hor dago kontradizkioa, EEBBak 80ko hamarkadan Iraki laguntza eman baitzion bere armamendu kimiko eta biologikoa egiteko.

Enbargoaren fruituak era haundian nabaritu dira populazio zibilean, baina ez beraien agintarietan, beti gertatzen den bezala. Enbargoaren ondorioz, 1990. urtetik ia milioi bat irakiar hil da, botika, janari eta beste oinarrizko produktuen ezagatik.

Datu hauek pentsaraztekoak dira, gizarte faltsu batean bizi baikara, besteez arduratzen ez dena, eta hau oso tristea da.

*Xabier Ramirez Garitano*

## tira biraka: bittor rodriguez



atrebentzia ezpada

## Zer egiten duzu buzoian jasotako publizitatearekin? Publizitaterik ez jasotzeko eskaera egingo zenuke?



**Juli Urkizu**

Irakurtzen dut baina beharbada publizitate gehiagi jasotzen da, papelez beterik izaten da buzoia. Nahiago nuke ez jasotzea.



**Aitor Lete**

Batzutan irakurtzen dut; beste batzuetan irakurri ere ez dut egiten. Supermerkatuko ofertak jarraitzen ditut batez ere. Ez dit inporta publizitatea jasotzeak.



**Maria Jesus Orbea**

Batzutan irakurtzen dut baina gehienetan zaborretara doa. Gehiegi jasotzen dugu eta ondo ikusten dut ez jasotzeko eskaera egitea; niri berdin zait.



**Manuel Horrillo**

Normalean zaborretara botatzen dut zuzenean, ez dut irakurtzeko ohiturarik. Publizitaterik ez jasotzea nahiago nuke.



**Ane Etxebarriarteun**

Bai, irakurtzen dut nahiz eta batzuetan aspertu horrenbesteko publizitaterekin. Ez jasotzea baino, gutxiago jaso beharko genuke.



**Manuel Moreno**

Ez diot kasu gehiegirik egiten; zerbait interesatzen zaidanean irakurtzen dut baina gehiegizkoa da. Baina interesatzen ez zaizuna botatzearekin nahiko da.

bai, esan!

**Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Andres Gomezek** mezu bat laga zigun kontestadorean martitzenean. Andresek herriko goi mailako kirolarien lana goraipatu nahi du eta bereziki Jokin Etxanizek Elkororekin batera jokatutako txapelketa. Hala ere, Udaleko agintariei kirolarien entrenatzeko baldintzak hobe ditzatela eskatu nahi die. Goiko Trenbidean, Bolutik Osintxura bitartean jende asko ibiltzen dela korrikan eta ibilbidea argiztatzeke dagoela esan digu Andresek. Beste horrenbeste gertatzen ei da Beheko Estaziotik Labegaraieta aldera. Udalak zerbait egin beharko lukeela esaten du Andresek, entrenatzeko baldintzak txarrak dira eta.

ikuspuntua: **marta moral**

## *Gazte ondo prestatuak*



Diotenez, ekonomia ondo omen doa, eta sektore gehienek nabaritu ere egiten omen dute. Txarrena da horrek ere baduela bere "baina" partikularra. Langai lanaren euskal zerbitzuak emandako datuek Euskadiko langabeziari buruz gogoeta egitera bultzatu naute. Funtzionatzen hasi zenetik, orain dela urtebete pasatxo, 90.000 lan-eskaera jaso ditu. Eskaini, aldiz, 10.000 lanpostu eskaini ditu. Egia da 90.000 eskegile horietatik 76.000 direla lan gabe daudenak eta besteak lanpostuz aldatu nahi dutenak direla.

Bila dabiltzanetatik gehienak emakumeak eta gazteak dira. Eta gazte izan arren, ondo prestatuak, harako iragarki hark zioen bezala. Aspaldi hasi ziren Madrileko Hezkuntza Ministeriotik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailordetzatik, etab.etatik goi mailako titulududun gehiegi eta tekniko gutxiegi zegoela esaten. Txintxotxintxo egin genien kasu, eta orain denetik daukagu sobra. Langairen datuak aztertuta, ikusten da lana eskatzen duten langabe gehienek LH-II amaitua dutela, modalidade batean edo bestean, eta beren curriculumak han eta hemen egindako hamaika ikastaroz gizenduta dituztela.

Horien ondoren, baina dexentez atzerago, unibertsitate lizentziatuak daude, asko eta asko oraindik inoiz lanik egin gabeak. Gazte ondo prestatuak baina langabeak. Badakit ez dena oso pozgarri halako datuekin bueltaka ibiltzea, batez ere, ikasleek otsaileko hilabete gorrotagarria atzean utzi duten une honetan. Ondorio moduan, esango nuke garbi dudala gehiago balio dutela 3-4 ideia argi eta proiektu zorrotz batzuk izateak, izan litezkeen curriculum-ik potoloenek baino. B

asteko menua

# Perretxiko eta ganbekin betetako piperrak



ZORIONE URIBARREN
*Zubi-Berri Jatetxeko sukaldaria*

**OSAGAIAK**
**(4 lagunentzat)**

- Piper berdea
- Tipula
- Perretxikoak
- Hirina
- Esnea
- Gatza.
- Ganbak.
- Olioa.
- Pikillo piperrak

**PRESTAKETA**

- Tipula eta piper berdea txikituko ditugu eta lapiko batean su bajuan oliotan egiten utziko ditugu bigundu arte.
- Ondoren, ganbak eta perretxikoak txikituta gehituko ditugu eta hauek egiten direnean, irin pixkat botako diogu nahasketari. Pixkanaka esnea gehitzen joango gara masa arin bat lortu arte.
- Nahasketa guzti honi gatz pixka bat bota eta bukatzeko pipar gorriak masa honekin beteko ditugu.

adituen esanetan

# Sagardotegietako menua

ALBERTO ALTUBE, *dietista*

Ikuspegi dietetiko batetik, sagardotegietan eskeintzen den menua ez da oso gomendagarria. Txuleta, bakailao tortila eta intxaurrak jatean proteina hutsak hartzen ditugu eta beharrezkoak zaizkigun hidratoak botatzen ditut faltan. Osakidetzak eta Munduko Osasun Erakundeak ere proteinen gehiegizko kontsumoa egiten dugula salatu dute eta horren ondorioak kolesterola, arteriosklerosia edota bihotzeko arazoak izaten dira. Gainera, sagardotegietan gatz gehiegi botatzen diote janariari eta tentsiorako txarra izateaz gain, gatzak eta hartzen diren proteinek sagardoa edatera bultzatzen dute jendea, horregatik edaten da hain errez. Likido asko hartzen denez eta normalean afariak izatean, dijestioa atzeratu egiten da eta lo egiteko arazoak izaten dira gero.

Bestalde, sagardoa berez ona da, alkohol gutxi duelako, azken batean sagarraren zumoa fermentatuta hartzen baitugu. Baina gauza bat da ona dela esatea eta beste bat neurriz kanpo edatea, sagardotegietan gertatzen ohi den moduan. Bestela, sagardoa hutsik edateko ardoa baino hobea dela esango nuke. Hala ere, bazkariari laguntzeko ardoa hobea da. B

bergarako gordailutik

## JATORRIZKO IZENAK ARTXIBO ZAHARRETAN

**Imanol Sorondo**

Denborarekin izen batzuk aldatuta etorri zaizkigu; adibide gisa, denok dakigu Mostei baserriaren jatorrizko izena Monasteriobide dela. Beste batzuetan, izenak ahaztutzeraino etorri gara.

Hona hemen Bergarako zenbait auzo eta baserriren jatorrizko izenak; erromatar zenbakiek gizaldia edo mendea adierazten dute.



**AUZOAK**
(*jatorrizko izena beltzean)*

San Lorentzo:
**Leizaria, XV**
Zubikoa ingurua:
**Zubiate, XVI**
San Antonio:
**Urteaga, XVI**
Gaztelu eta Azkarruntz ingurua:
**Berrabe, XVIII**
Azkunetako San Martin:
**Arexkurenaga, XVII**
San Blas:
**Burunano, XV**

Horrela, Buiñao edota Buñao, Burunanotik etorriko lirateke eta Muñondo eta Burinaondo (XVIII) Burunano-ondotik, agian.

**BAERRIAK**
(*jatorrizko izena beltzean)*

Atxotegi:
**Ansotegi, XV**
Santamaiña atzea-Katabixa:
**Kataibia, XVI**
Itxasmendi:
**Isasimendi, XVII**
Iraburu:
**Iriburu, XVIII**
Agorrosin:
**Agirreosin, XVIII** B



# Isabel Bianchi Zairen hil da

**Isabel Bianchi** Martinez, Mariaren Lagundiako monja eta bertako Ikastolako irakasle izandakoa Zairen hil zen joan den otsailaren 13an bihotzekoak jota. Isabel Bianchik 47 urte zituen eta 1984tik 1988ra Enseñantzako irakaslea izan genuen, Udal Euskaltegian euskara ikasten jardun zuelarik. Bergarara etorri aurretik Paraguayko guaraniekin hainbat urte eman zituen eta hemendik alde egindakoan Afrikara joan zen. Kamerunen eta Zairen izan ondoren, Zaireko gerra piztu zenean alde egin beharra izan zuten eta handik bost hilabetera berriz ere itzuli ziren Ruanda ondoko **Kiondo** eskualdera. Kiondoko ospitalean lan egiten zuen. Goian bego.



# Zuhaitz eguna

Herriko gaztetxo ugarik hartu zuen parte zapatuan Zuhaitz Egunean. Iaz bezala, arbol landaketa **Pol-Pol** iturriaren inguruan egin zen eta guztira 60 bat gaztetxo hurbildu ziren bertara. Hala ere, ikasleak ez ziren gehiegi nekatu; Elosumendira autobusez igo ziren eta handik Pol-Polera Udalak jarritako kotxeetan eraman zituzten. Ondoren, udal langileen laguntzaz, **200 bat hostozabal** (pagoak, urkiak edo aritzak) landatu zituzten. Ohizkoa denez, lanarekin amaitu eta gero, ogitartekoak banatu ziren Zuhaitz Egunean parte hartu zutenen artean. Zuhaitz Egunean herritar guztiek daukate parte hartzeko aukera baina oraingoz 10-12 urteko ikasleak dira animatzen diren bakarrak. Ea hurrengo urtean...

# Maite Aristegiren ezkontza

**Maite Aristegi** EHNEko Idazkari Orokorra **Jon Odriozola** kazetari bizkaitarrarekin ezkondu zen zapatuan **San Martzialen**. Maiteren eta Jonen senideez gain, lagun asko hurbildu ziren San Martzialgo ermitara. Elizkizunean Orfeoiko talde batek eta Xamatzek hartu zuten parte eta ezkonberriei eskeinitako bertsoak ere ez ziren falta izan. Bazkaria Lasa jatetxean egin zuten Maitek eta Jonek euren senideekin. Atzo, eguena, abiatu ziren ezkontza bidaia egitera Pragara eta Budapestera. Zorionak!!





# 65 urte ezkonduta

**Alejandro Alberdi eta Josefa Zabaleta**k 65 urte ezkonduta bete zituzten joan zen domekan, hilak 22. Hori dela eta, familiartekoekin bildu ziren Txarrantxan mahaiaren inguruan. Alejandrok 89 urte ditu eta Josefak 88 eta **Aizpurutxon** ezkondu ziren. Bost seme-alaba, 16 biloba eta 6 birloba izan dituzte. Orain arte bezala, eutsi goiari!










# AratuZteei agur












## Jokin Etxaniz eta Elkoro txapel-faltan

# *"Guk baino disgusto handiagoa hartu zuten zaletu batzuek"*

**Bistan da Aitor Elkoro eta Jokin Etxaniz elkarrekin primeran konpontzen direla. Hori izan daiteke egin duten txapelketa bikainaren klabeetako bat. Hala ere, ezin izan zuten egindako lana nahi bezala burutu zapatuko finalean. Txapela ia eskuan zutela, garaipenak ihes egin zien azken tantuan Unanue eta Errastiren alde. Eguaztenean, lasaiago, beraiekin hizketan izan ginen.**

**Galdera:** Zer gertatu zen txapela ez lortzeko?

**Aitor Elkoro:** Partidu ona egin genuen baina gertatzen da holako kasuetan, galdutakoan, egindako hutsekin akordatzen zarela bakarrik. Tanto bakar bategatik irabazi izan bagenu, inor ez zen akordatuko erabilitako taktikarekin edo galdutako pilotekin.

**Jokin Etxaniz:** Ez dut uste taktikarengatik izan zenik. Hasieran ere tantu gogorrak egin genituen baina beren alde jausi ziren gehienak. Gero asmatzen hasi ginen eta partiduari buelta ematea lortu genuen. Eta azkeneko tantua edozein alde jausi zitekeen. Horrelakoetan nekeak, nerbioek eta suerteak ere zeresana izaten dute, edozer gauza gertatu daiteke. Zoritxarrez, azken tantua eurek egin zuten.

**G.** Unanue erdi lesionatuta zegoela ez zenuten behar bezala aprobetxatu?

**J.E.** Jendeak Unanueri zergatik ez genion jokatu esaten digu baina gure betiko jokoarekin bukatzea nahi genuen partidua, atzera joten eta aurrean tantua bukatuz. Unanue ere ematen zuena baino





hobeto zegoen; lesionatuta bai baina ez hain gaizki. Tanto batzuk bukatu zituen, defentsa ona erakutsi zuen... Lesio horiek berotan ez dira hainbeste igartzen, hurrengo egunean okerrago egongo zen.

**A.E.** 15 eta 13ko emaitzarekin lesionatu zen Unanue eta handik aurrera sei erremate egin zituen. Planta piskat egin zuela uste dut, bestela ez zituen jokatuko tanto batzuk jokatu zituen moduan. Errastik ere momentu txarrak igaro zituen eta lesioaren kontuarekin aldageletara sartu ziren, bost minutu edo gehiago egon ziren deskantsuan eta ondoren, tantotik tantora errekuperatzeko tartea izan zuten. Hortik aurrera Errastik oso ondo jokatu zuen.

**G.** Disgusto handia txapela ez lortzeagatik?

**A.E.** Duda barik, horrelako kasuetan ez dakizu 22-10eko emaitzarekin galtzea hobea den. Txapela ikutzen euki eta horrela galtzea gogorra da. Pena da jendea gero txapeldunekin bakarrik akordatzen delako.

**J.E.** Nik, galtzekotan nahiago dut horrela galtzea, ondo jokatuta nahiz eta tanto bakar bategatik izan. Behintzat jendeak edozeinek irabaz zezakeela ikusi zuen; frontoiko ikusle gehienak gure alde zeuden eta eurengatik ere pena hartzen duzu. Batzuek guk baino disgusto handiagoa hartu zuten baina espero dugu hurrengo batean beste aukera bat izatea.

**G.** Zer esaten dizute dirua zure alde jokatu zutenek?

**J.E.** Ez dugu inor behartzen gure alde dirua jokatzera. Pena handiena, partidua ikustera joan zirenengatik eta telebistaz jarraitu zigutenengatik hartu dugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu gure jarraitzaileei benetan oso giro ona izan zelako partiduan, etengabe animatu gintuzten.

**A.E.** Manomanoko finala ere jokatu dut Frontoi horretan eta orduan ere giroa ikaragarria izan zen. Baina zapatuko finalean oraindik anbiente politagoa zegoen. Bion jarraitzaileak batera izan ziren eta egundoko anbientea piztu zuten. Nekez ahaztuko dugu egun hori.

**G.** Adituek txapelketako maila eskasa kritikatu izan dute baina finala egundokoa izan zen...

**A.E.** Ez dut uste txapelketa horren txarra izan denik, joan zen urtekoaren antzekoa izan da eta iaz, ligillan, partidu txarragoak izan zirela esango nuke. Dena den, finalarekin salbatuta geratu da txapelketa. Zaletuak oso gustora geratu ziren.

**J.E.** Zaila da horrelako final bat tokatzea. Normalean finalak ez dira partidu onenak izaten baina aurten horrela tokatu da.

**G.** Zeintzuk izan dira momenturik onenak eta txarrenak?

**A.E.** Onenak, duda barik, final inguruko guztia; disfrutatzeko egunak izaten dira. Urtean txapelketa gutxi izaten dira eta finalera iristea oso polita da. Txarrenak? txapelketa hasierakoak. Lehenbiziko partiduetan nahiko txarto pasatu nuen, arazo dexente izan nituen eta eskerrak Etxaniz joko aldetik oso ondo zegoela. Baina pozik nago egin dudan txapelketa bukaerarekin.

**J.E.** Askok komentatzen didate ez ote den pelmada haundia finalaren aurretik horrenbeste elkarrizketa egin behar izatea . Urtero gustora egingo nuke... Bestalde, momentu txarrena, beharbada, Logroñon jokatutako semifinaleko partidua izan zen. Gaizki pasatu nuen partidua jokatzen baina dagoeneko ahaztuta dago dena.

**G.** Txapelketa aurretik, Jokin, zure partaidetza zalantzan izan zen eta amaieran txapelketako onenetakoa izan zara...

**J.E.** Ohitura bihurtzen ari da azken momentura arte duda izatea. Hiru urte daramatzat horrela eta batzuk horregatik fijoa naizela esaten didate brometan. Egia esan, horrelakoetan gaizki pasatzen da, entzuten kanpoan geldituko zarela, beste pilotari batzuk aipatzen dira zure tokian eta horrek nireganako presioa gehitzen du. Eta ez da batere erreza presio horrekin jokatzea.

**G.** Joko aldetik zuen momenturik onenean zaudete orain?

**J.E.** Egia da txapelketa honetan konfiantza gehiagoz jokatu dudala baina oraindik badaukat hobetzeko asmoa. Lesioekin ere suertea izan dut aspaldian baina zaila da orain edo lehen hobeto nengoen esatea. Orain dela bi

***"Nahiz eta tanto bakar bategatik izan, galtzekotan nahiago dute horrela galtzea, ondo jokatuta. Argi ikusi zen edozeinek irabaz zezakeela" JOKIN ETXANIZ***

urte finalera heldu nintzenean ere joko onarekin nengoen.

**A.E.** Nire kasuan joan zen urtean hobeto ibili nintzen, ez dakit kalibratzen zein momentutan nagoen, baina %100ean ez nago. Arazo fisiko dexente pasatu ditut eta ea orain buruz-buruko txapelketarako puntu onean jartzen naizen. Txapelketa nahiko ondo bukatu dut, nahiz eta eskumarekin ez nabilen holako pilotazo onak joten. Baina txapelketa hasieratik hona hobekuntza nabaria igarri dut.

**G.** Zein asmo manomanistarako aurten?

**A.E.** Oraindik ez dakit jokatuko den... Badirudi Asegarce ez dela aurkeztu Espaniako Federazioan eta ikusi egin behar; ea pilotari denok jokatzen dugun. Onena bi enpresetako jokalariak jokatzea eta txapelketa ona suertatzea izango litzateke [eguastenean bertan Federazioak Aspeko pilotariekin bakarrik jokatuko litzatekeen txapelketari baiaetza eman zion].

Hurrengo astetik buru-belarri hori gertatzen hasiko naiz eta ea ilusio piskat hartzen dugun. Binakako txapelketa galdu ondoren, beti kostatzen da berrito arrankatzea. Zaila ziango da iaz moduan finalera heltzea; saiatuko naiz joan zen urteko puntu hori lortzen baina zaila izango da; buruz buruko partiduak oso konplikatuak dira

**"Ez dakit zer gertatuko den aurtengo manomanista txapelketan. Onena bi enpresetako jokalariak jokatzea eta txapelketa ona suertatzea litzateke" AITOR ELKORO**

**G.** Eta zu Jokin, noiz izango zaitugu manomanistan?

**J.E.** Laut´erdiarekin nahikoa daukat... Asko gustatzen zait manomanista baina oraindik indarra, kolpe gehiago falta zait hor jokatzeko. Ezker zein eskuinarekin kapaz izan behar zara atzean piloteoa mantentzeko eta oraingoz behintzat zaila daukat hori. Momentuz bikoteka ahalik eta ondoen jokatzen ahaleginduko naiz baina ez dut deskartatzen urteren batean manomanistan jokatzea.

**G.** Aitor, datozen bost urtetarako Aspe enpresa berriarekin sinatu duzu. Zela baloratzen duzue enpresa berriaren etorrera?

**A.E.** Printzipioz pilotaren onerako izan beharko litzateke, baina ikusi egin beharko da enpresen jarrera. Egun batzuk pasatu beharko dira kontua zelan geratzen den ikusteko. Akordio batetara ez badira heltzen, denontzako txarra izango da; bi koadro oso onak egiteko momentuan ez dago pilotari asko. Momentu honetan gauzak nahiko nahastuta daude baina lasaitzeko itxaropena daukat.

Enpresa berriari dagokionez, jendeak ez dezala pentsa orain soldatak bikoiztuko dizkigutenik, hobetu bai baina bere neurrian, bestela ez litzateke enpresa biablea izango. Nire kasuan aukera ona ikusi dut eta erabaki pertsonala izan da.

Asegarceri ere errekonozitu behar zaio egin duena; berari esker kobratzen dugu gaur kobratzen duguna. Gauza onak egin ditu baina beste hainbatetan ez du horren ondo jokatu, bestela ez ginen zazpi pilotari enpresa berrira joango. Beste hainbat tokitan ere arerioak irten zaizkio: Euskal Telebistan, hainbat udaletxetan, federazioekin ere arazoak izan dituzte... Dena eskuan zutela uste izan dute eta ustekabe ederra hartu dute Asperen sorrerarekin.

**J.E.** Ondo ikusten dut beste enpresa bat sortzea, gure baldintzak hobetuko direlako. Eskaintzarik? Berbetan egon naiz eta komentatu nien uztailera arte kontratua daukadala oraingo enpresarekin. Asegarceren monopolioa haustea ondo ikusten dut lehen enpresarekin akordiorik lortzen ez baldin bazen ez zegoelako beste irtenbiderik. B

EGUNKARIA



Ezkerrezko argazkian Jokin Etxaniz. Bergararrak ez du baztertzen etorkizunean manomanistan parte hartzeko aukera. Alboan, Aitor Elkoro. Iazko txapeldunordeak datorren astean ekingo dio zeresan ugari ematen ari den buruz-buru txapelketa gertatzeari.

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**ZAPATUAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **09:00:** Amilotx-Polideportivo Taberna | **Jakina PT** |
| **10:00:** Jakina PT-Aldoka Maldoka | **Amilotx** |
| **11:00:** La Juve-Shaktale | **Aldoka** |
| **19:30:** Bar Ganbara-Indargorri | **Artusamak** |

**ZAPATUAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **16:30:** MRW-Matxakategi | **Moskis** |
| **17:30:** Eri Sirimiri-Moskis | **MRW** |
| **18:30:** Ezinleike-Artusamak | **Eri Sirimiri** |

**DOMEKAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **09:30:** Usoa-Erdibiterrak | **Txipiron** |
| **10:30:** Txipiron-Gazteak | **Erdibiterrak** |
| **11:30:** Igandekoak-Etengabe | **Gazteak** |
| **12:30:** La Peña DML-Ganbara Ari Ari | **Igandekoak** |
| **16:00:** Autoberezi-Uve Bikoitza | **Canalejas** |
| **17:00:** Pagomendi-Bar Canalejas | **Errotagain** |
| **18:00:** Errotagain-Bildurbarek | **Pagomendi** |
| **19:00:** Etxagi-Ortzi | **Bildurbarek** |
| **20:00:** A Ze Flaxa-Mongatxurrak | **Ortzi** |

**DOMEKAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **11:30:** Agiñaspi-Azpeitixi Jatetxea | **Manitou** |
| **12:30:** Amozkibar-Manitou | **Azpeitxi** |
| **16:00:** SLO-Agirrebeña Jatetxea | **Bayer** |
| **17:00:** Bayer-Ufala | **Agirrebeña** |
| **18:00:** FAC-Guadalest | **Ufala** |

## argi!

**Ortzi taldeari puntuak bueltatu dizkiote**

Orain dela aste batzuk Ortzi taldeari 3 puntu kendu zizkioten, A Ze Flaxa Etxgiren aurkako partidua atzeratzeko erabakia berandu jakinarazteagatik. Azalpenak entzun ondoren puntuak berriz eman dizkiote Ortziri.

## jokoz kanpo



**Iñaki Zurutuza**
POLIDEPORTIVO TABERNA

**G.** Zer moduz zabiltzate?
**E.** Aurten oso ondo gabiltza. Joan zen urtean partidu bakarra irabazi genuen eta aurten dagoeneko 4 irabazi ditugu.
**G.** Jokatu duzuen partidurik zailena?
**E.** Ari Ari Ganbara eta Txipironen aurkakoak.
**G.** Zer postutan espero duzu geratzea?
**E.** Azkenak geratzen ez bagara ondo egongo litzateke.
**G.** Taldekoak kuadrilakoak zarete?
**E.** Kuadrilakoak joan zen urtean hasi ginen jokatzen eta orain bakarrik bi geratzen gara.
**G.** Zer pasatu da, bada?
**E.** Orkatilekin arazoak izan dituzte.
**G.** Ez zarete berotzen ala?
**E.** Bai, baina aurten ere beste hiru jokalari lesionatu egin dira.
**G.** Zer postutan jokatzen duzu?
**E.** Atezaina naiz eta joan zen urtean gol gehien jaso nituena izan nintzen.
**G.** Zein da taldeko izarra?
**E.** Manu edo Jorge.
**G.** Zeinek irabaziko du Liga?
**E.** A ze galdera! Realak!
**G.** eta mundiala?
**E.** Italiak.

## gora eta behera

**Andoni Urrutia eta Patxi Serna**
La Juve taldeko Andoni Urrutiak 6 gol sartu zituen Ufalaren aurka jokatutako partiduan. Egia da Ufalakoak jokalari bat gutxiagorekin aritu zirela, baina 6 gol partidu batean sartzea ez da marka makala. Bar Canalejas taldeko Patxi Sernak, berriz, 5 gol sartu zizkion Etxagi taldeari.

**Aratuzteetako bixamona**
Joan zen asteburuan Aratuzteak izan zirela argi geratu zen talde bat baino gehiago jokalari bat gutxiagorekin agertu baitzen jokatzera. Horien artean Errotagain taldea, Ortziren aurka jokatzera 5 jokalari bakarrik joan ziren eta bigarren zatian bat lesionatu eta partidua suspenditu egin behar izan zuten: 3 eta 2 Ortziren alde.

## emaitzak

| | |
|---|---|
| Mongatxurra-Arloteak/Oilagorra | 3-0 |
| Pagomendi-Jauja OH Zerezos | 7-7 |
| Bar Canalejas-Etxagi | 9-3 |
| Ortzi-Errotagain | 3-2 |
| Azpeitxi-A Ze Flaxa Etxagi | 0-5 |
| Manitou-Bayer | 6-2 |
| Amozkibar-Guadalest | 2-12 |
| Artusamak-FAC | 6-2 |
| Agirrebeña-Ezinleike | 3-4 |
| SLO-Shaktale | 1-5 |
| Ufala-La Juve | 4-10 |
| Komando Piperrak-Indargorri | 0-1 |
| Uve Bikoitza-Bar Ganbara | 5-4 |
| Matxakategi-Autoberezi | 4-5 |
| Moskis-MRW | 2-3 |
| Aldoka Maldoka-Eri Sirimiri | 8-5 |
| Polideportivo Taberna-Patatus | 3-2 |
| Etengabe-Usoa | 4-3 |
| Gazteak-La Peña DML | 3-5 |

## sailkapenak

**Lehen maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | A Ze Flaxa Etxagi | **45** | 18 |
| **2.** | Mongatxurrak | **39** | 18 |
| **3.** | Pagomendi | **32** | 18 |
| **4.** | Errotagain | **31** | 17 |
| **5.** | Bar Canalejas | **29** | 17 |
| **6.** | Azpeitxi Jatetxea | **23** | 18 |
| **7.** | Etxagi | **21** | 18 |
| **8.** | Bildurbarek Opel/Lam | **21** | 17 |
| **9.** | Jauja OH Zerezos | **18** | 18 |
| **10.** | Ortzi | **15** | 18 |
| **11.** | Agiñaspi | **13** | 17 |
| **12.** | Arloteak/Oilagorra | **8** | 18 |

**Bigarren maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Manitou | **21** | 7 |
| **2.** | Shaktale | **16** | 7 |
| **3.** | Artusamak | **11** | 7 |
| **4.** | FAC | **11** | 7 |
| **5.** | SLO | **9** | 7 |
| **6.** | Ezinleike | **9** | 7 |
| **7.** | Bayer | **9** | 7 |
| **8.** | Guadalest | **8** | 7 |
| **9.** | Agirrebeña Jatetxea | **7** | 7 |
| **10.** | Amozkibar | **7** | 7 |
| **11.** | La Juve | **5** | 7 |
| **12.** | Ufala | **2** | 7 |

**Hirugarren maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Moskis | **15** | 7 |
| **2.** | Bar Ganbara | **15** | 7 |
| **3.** | Autoberezi | **15** | 6 |
| **4.** | Matxakategi | **9** | 6 |
| **5.** | Uve Bikoitza | **9** | 6 |
| **6.** | MRW | **9** | 6 |
| **7.** | Indargorri | **9** | 6 |
| **8.** | Jakina Patxaran Team | **7** | 6 |
| **9.** | Eri Sirimiri | **6** | 6 |
| **10.** | Aldoka Maldoka | **3** | 7 |
| **11.** | Komando Piperrak | **3** | 7 |

**Laugarren maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Usoa | **12** | 6 |
| **2.** | Txipiron | **12** | 6 |
| **3.** | Ganbara Ari Ari | **12** | 6 |
| **4.** | Polideportivo Taberna | **12** | 6 |
| **5.** | Etengabe | **12** | 6 |
| **6.** | Erdibiterrak | **12** | 5 |
| **7.** | Igandekoak | **10** | 6 |
| **8.** | La Peña DML | **7** | 6 |
| **9.** | Amilotx | **6** | 6 |
| **10.** | Gazteak | **3** | 7 |
| **11.** | Patatus | **-3** | 7 |

# ESKOLA KIROLA

*IKUSI ETA IKASI*

**FUTBOLA:**
**Jokoz kanpo:**

Baloia jokoan dagoen unean jokalari bat kontrako ate-marratik baloia baino gertuago aurkitzen denan gertatzen da. Horretan bi salbuespen daude:
- Jokalaria bere ekipoari dagokion zelai erdian kokatuta baldin badago.
- Beraren eta hondoko marraren artean beste taldeko bi jokalari edo gehiago baldin badaude.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



*TXINPARTAK*

**Marka onak lortu zituzten kirolari bergararrek**

Joan zen astean Arrasaten jokatutako eskola arteko txapelketan kirolari bergararrek marka onak lortu zituzten. Azpimarratzekoa da alebin mailan Markel Agirrek luzeera jauzian lortutako 3,76 metroko marka. 60 metro hesietan Gorka Iñurrieta bigarren sailkatu zen eta Markel Agirre hirugarren. Infantil mailan Enara Garciak altuera jauzia proba 1,25 metroko markarekin eta aintxintxiketako 80 metroak irabazi egin zituen. Pisu jaurtiketan alebin mailan Iker Orgazek irabazi zuen eta Jon Kapelastegi bigarren postuan sailkatu zen. Kontutan hartzekoa da Arrasaten jokatu ziren probetan Arrasate, Oñati eta Bergarako kirolariek parte hartu zutela.



## Aranzadiko infantilak. Neskak

Aranzadi infantil mailako nesken futbol taldea Eli Agirre, Amaia Sancho, Amaia Mendizabal, Usue Amasorrain, Amaia Osa, Itziar Larrañaga, Miren Basauri, Amaia Bea, Lorea Alcazar eta Ariane Menorrek osatzen dute. Entrenatzailea Igor Fernandez da eta sailkapenaren erdialdean daude. Entrenatzaileak adierazi digunez, neska jatorrak dira, baina batzuk entrenamenduetan alfer samarrak omen dira. Futbol zazpian jokatzen dute eta 3-2-1 sistema erabiltzen dute. Futbola gustatzen zaielako aukeratu dute eta beste kirol batzuetan ere aritzen direla esan digute. Futbola jarraitzen dute eta Realzale amorratuak dira Aranzadiko futbolariak.



## M. Lagundiko infantilak. Neskak

Mariaren Lagundiko infantil mailako nesken futbol taldea Miren Alberdi, Liberdi Iñarra, Rachael Olabarria, Amaia Tornos, Amaia Zaitegi, Kristina Martinez, Maialen Olañeta, Mireia Lizarralde, Eider Beistegi, Leseia Larrañaga, Naroa Alberdi eta Nagore Dorronsorok osatzen dute. Bikaian ari dira Igor Garciak entrenatutako neskak, orain arte jokatutako partidu guztiak irabazi egin baitituzte. Taldeko goleatzailerik onena Rachael dela esan digu entrenatzaileak eta astean zehar bi entrenamendu saio egiten dituzte. Hauek ere 3-2-1 sistema erabiltzen dute eta orain arte jokatutako partidurik gogorrena Arrasateko SFXen aurkakoa izan dela diote.

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

Zapatuan, Ipintzan futbol zelaian.

**Infantilak / Mutilak**

**09:15:** Ipintza DBH-Elgeta.
**10:30:** M Lagundia-San Viator.

**SASKIBALOIA**

**Alebinak / Mutilak**

Guztiak zapatuan, M Lagundian.
**10:00:** Aranzadi 9-Antzuola.
**10:00:** M Lagundia A-Aranzadi 10.
**11:00:** M LagundiaB-Aranzadi 12.
**12:00:** Aranzadi 11-Aranzadi 10.

**Alebinak / Neskak**

**11:00:** Antzuola-San Martin.
**12:00:** Aranzadi 13-Aranzadi 14.

**ESKUBALOIA**

**Benjaminak**

Zapatua, Seminarioko patioan.
**10:30:** M Lagundia B-Aranzadi 3.
**10:30:** Aranzadi 2-Elgeta.
**11:15:** San Martin-Antzuola B.
**11:15:** Antzuola A-Aranzadi 4.
**12:00:** M Lagundia A-Aranzadi 6.
**12:00:** Aranzadi 1-Aranzadi 5.

**PILOTA**

**Alebinak**

Partidu guztiak zapatuan 15:30etan, Antzuolako pilotalekuan.

**Mariaren Lagundia**:
Iñaki Manuel/Mikel Irizar/Josu Agirrezabal. Urdin Alberdi/Unai Aranzabal/Iñaki Lasa.

**Aranzadi**:
Unai Agirre/Ibai Igarza/Mikel Salegi. IñakiElkorobarrutia/Eloy Crespo/Iker Orgaz. Julen Muguruza/Markel Agirre/Pol Lopez. Eneko Muguruza/Asier Iparragirre/Mikel Larrañaga.

**Infantilak**

Partidu guztiak zapatuan 15:30etan Zabalotegiko pilotalekuan.

**Aranzadi**:
Manex Altuna/Beñat Iñarra. Asier Larrañaga/Ander Gabilondo.

**Mariaren Lagundia**:
Iker Azagirre/Jokin Iñarra.

**Ipintza DBH**:
Ander Cabezas/Mikel Leturia.

## Futbola

Joan zen asteburuan BKEko futbol talde gehienek atsedena izan zuten Aratuzteak zirela eta. Partidu bakarra Lehen mailako jubenilek jokatu zutena izan zen eta Pablo Gallastegiren mutilek garaipen erreza lortu zuten Ilintxaren aurka 4-1 irabazi baitzioten. Asteburu honetan talde nagusiak Lasarteren kontra jokatuko du etxean eta Nietoren mutilek irabazteko faboritoak dira. Oraindik 7 puntuko aldearekin jarraitzen dute lidergoan. Oraingo partiduak irabaztea garrantzitsua izango da hurrengo partiduetan mailako talde onenen aurka jokatuko baitute.

Bestalde, bigarren mailako jubenil eta kadeteek igoera faseko lehen postuan jarraitzen dute.

## Eskubaloia

BKEko talde nagusiak azkenengo partez Zumaiako Pulpo taldeari 21-16 irabazi zion. Lijoren mutilek lehenengo zati ona jokatu zuten eta 5 goleko aldea atera zuten. Bigarren zatiko lehenengo 15 minutuetan joku txarra egin zuten eta arerioak 2 goletara gertaturatu ziren. Bergararrek erreakzionatu egin zuten eta azkenean garaipen erreza lortu zuten. Emaitza horri esker jeitsierako postuak urrunago geratu dira.

Jubenil mutilek partidua irabazi egin zuten eta 5. postuan daude. Kadete mutilek ere etxean jokatu zituzten bi partiduak irabazi egin zituzten eta liderrak dira. Kadete neskak asteburu honetan hasiko dira jokatzen kopako txapelketa.

## Saskibaloia

BKE-Bolsos Bergara taldeak 5 punturengatik galdu zuen igoera faseko lehenengo partidua Portugaleteko Jarrillerosen aurka. Bizkaitarrak euren taldean lehenengo postuan sailkatu ziren igoera fasean eta igotzeko faborito nagusiak dira.

Conderen mutilek partidu txukuna egin arren, zerbait gehiago egin zezaketen. Asteburu honetan Gasteizen jokatzen dute eta aukera asko dituzte partidua irabazteko arabarrak azkenengo postuan sailkatu baitira. Jubenil mailako taldeak puntu bakar bategatik irabazi zion Atletico S.S-ri eta lehenengo postuan daude. Kadete mutilek irabazi barik jarraitzen dute. Azkenik neskek Aratuzteak direla eta, atsedena izan zuten.

## IÑAKI ARANZABAL / Eskubaloilaria

## "Erreflejoak dira nire gauzarik onena"

**Iñaki Aranzabal BKEko kadete mailako eskubaloi taldeko atezaina da. Bi urte daramatza atezain moduan jokatzen eta bere taldearekin batera ezin hobeto ari da igoera fasea jokatzen lehen itzulia bukatu denean lehen postuan baitaude.**

**G.** Zenbat geratzen zaizue igoera fasea bukatzeko?

**E.** Zortzi partidu jokatu ditugu eta sei irabazi eta bi berdindu egin ditugu. Bigarren itzulia hasi berri dugu eta lehenengo partidua irabazi egin dugu.

**G.** Espero zenuen hain ondo ibiltzea?

**E.** Hasieran gaizki ibili ginen eta gero entrenatzen gogorrago hasi ginen eta orain geroz eta hobeto gabiltza.

**G.** Taldearen gauzarik onena?

**E.** Ondo eramaten garela eta txarrena, berriz, partidu batzuetan kontzentrazioa galtzen dugula.

**G.** Non moldatzen zarete hobeto defentsan edo erasoan?

**E.** Erasoan.

**G.** Igotzeko aukerarik ikusten duzu?

**E.** Bai, hurrengoa bi puntutara dago eta.

**G.** Zergatik aukeratu zenuen atezain postua?

**E.** Gustokoa nuelako.

**G.** Zer da garrantzitsuagoa erreflejoak izatea edo kolokazioa?

**E.** Biak. Nik gehienbat erreflejoak ditut.

**G.** Balonazo asko hartzen duzu?

**E.** Mordoa. Horretara ere ohitu egin behar da.

**G.** Zein da gehien gustatzen zaizun taldea?

**E.** Bartzelona.

**G.** eta jokalari bat?

**E.** Dussebaiev eta Svensson.

**G.** Zein da geratzen zaizuen partidurik zailena?

**E.** Goierri eta Donibaneren kontrakoak.




## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Bergara-Lasarte**
Lehen maila erregionala.
Domeka. 16:30. Agorrosin.

**Bergara-Groseko**
Bigarren mailako jubenilak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

**Bergara-Almen**
Lehen maila kadeteak.
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**ESKUBALOIA**

**Iraundi BKE-Urola**
Senior mutilak.
Zapatua. 18:00. Labegaraieta.

**Bergara-Zarautz**
Kadete neskak.
Zapatua. 16:30. Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**

**Bergara-Asteasu**
Jubenil neskak.
Eguakitza. 19:00. M. Lagundia.

**NESKEN IV. FUTBITO TXAPELKETA**

Domeka. M. Altuna instituan.

**Nifis-Azkenak**
*Arb.: Antolatzaileak. 11:00.*

**Gu Geu-The Road Island**
*Arb.: Nahikari. 12:00.*

**Potzu T.Z.-Blue Star**
*Arb.: Nifis. 12:00.*

**Zutaz Pentsatzen-Nahikari**
*Arb.: Blue Star. 13:00.*

**PILOTA**

Udal pilotalekua.

**Foru Aldundiko Kopa**
Eguakitza. 22:00:
Bergara-Aretxabaleta,
Jubenil binaka.
Bergara-Elgoibar,
Senior binaka.

**Euskadiko Liga**
Eguakitza. 22:00:
Bergara-Billabona
Junior binaka.
Domeka. 11:00:
Bergara-Tolosa,
Senior binaka.

**Bergara Hiria**
Domeka. 11:00:
Infantilen txapelketako finalerdiak.

# Kirol fitxak euskaraz sortzeko beka

**Deba Bailarako** Euskara eta Kirol Zerbitzuek kirol materiala euskaraz sortzeko beka kaleratu dute. Aurtengoa VIII. edizioa da eta tenis eta kirol alternatiboei buruzko fitxa didaktikoak sortzea du helburu. Fitxa horiek eskola kirolean, heziketa fisikoan eta klubetan, haur eta gazteekin dabiltzan teknikari eta irakasleei zuzendu nahi dizkiete. Kirol eta Euskara zerbitzuek bi beka emango dituzte, bata tenisari dagokiona eta bestea kirol alternatiboei.


Patinajeko fitxak egiteko aukera ematen da.

Tenisaren fitxei dagokienez, historia, oinarrizko arautegia, progresio didaktikoa, kolpe desberdinak, minitenisa eta oinarrizko hiztegia agertu beharko dira.

Kirol alternatiboen barruan patinajea, frisbee-a (disko hegalaria), badmintona eta malabarak landu beharko dira. Kirol bakoitzeko gutxienez 10 fitxa egin beharko dira, arautegiari eta progresio didaktikoari eskeinitakoak. Beka bakoitzak 300.000 ptako dirulaguntza izango du eta lana bukatzeko 5 hilabeteko epea emango dute. Eskaerak aurkezteko azkenengo eguna apirilaren 20a izango da eta informazio gehiago nahi duenak Deba Bailarako Kirol Zerbitzuetara jo dezake. B

## Arku tiraketa ikasteko aukera domekatik aurrera

**Bergarako Arkulariak** elkarteak arku tiraketako hasierako ikastaroa antolatu du. Ikastaroa domekan hasiko da goizeko 11:00etan Martinez de Irala eskolako patioan. Herriko arkularien elkartea duela gutxi sortu dute herriko arku tiraketa zaletu batzuk. Astearte eta eguenetan arratsaldeko 20:30etatik 21:30etara eta zapatu goizetan entrenatzen dira Martinez de Irala eskolan. Elkartean edozein adineko kirolariek har dezakete parte eta informazio gehiago jasotzeko 946 20 13 32 edo 939 26 63 40 telefonoetara deitu edo martitzen eta egunetan arratsaldeko zazpietatik 21:00etara Martinez de Iralako gimnasiotik pasatu behar da. B



## Elgoibartarrak nagusi pala txapelketan




**Pala txapelketaren** finala Urigoitia eta Mancebo elgoibartarrek irabazi zuten. 35-18 irabazi zioten Alberdi-Gallastegi bikoteari. Finalaren aurretik jokatu beharreko 3. eta 4. posturako partiduak ez ziren jokatu jokalari bat gripeak jota baitzegoen. Ondoren sari banaketa ekitaldia egin zen. Bertan Iñaki Ugarteburu kirol teknikaria eta Jabier Zabaleta kirol zinegotzia izan ziren. B

LASAGABASTER
LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 79 27 27 / 79 13 55

Irizar 2
☎ 76 14 95
JAUJA KIROLAK

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/ MOTOAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

Pisu amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

### Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke. 76 04 57.

Baserri baten bila gabiltza bertan bizitzeko. 908 47 07 52.

### Erosi

Pisua erosiko nuke Bergaran. 76 57 74.

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Garajea salgai Bolun. Deitu 76 47 99 telefonora.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Garajea salgai Masterrekan. Deitu 76 24 57 telefonora.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. Deitu 76 27 61 telefonora.

Garajea salgai Martokon. 76 35 50.

Garajea salgai Ibargarain. Milioi bat. Deitu 76 21 61 telefonora.

Garajea salgai Espoloian. 76 18 28.

Garajea salgai San Antonion. Deitu 76 15 37 telefonora.

### Errentan emateko

Garaje bikoitza alokairuan Torrekoan. Deitu 763032 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarai 37an. Deitu 763376 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 76 16 38 telefonora.

### Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 7650 00.

Garajea alokatuko nuke. 7605 17.

## 3. LOKALAK

### Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m². 76 1189.

Lokala salgai A. Flemingen. 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai Martokoan. 76 25 67.

### Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

### Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). 76 58 91.

Uberan 144 m²ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m²ko lokala alokairuan. 76 35 09.

Dietetika-loradenda traspasatzen da Berrizen. Lorazaintzan aditutako jendea nahiago. 94 682 42 28 (denda orduetan)

### Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke Osintxun. 76 08 21.

## 4. LANA

### Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egingo lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebukaeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 76 56 66.

Klinika auxiliar batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. Deitu 76 64 47 telefonora.

Neska tituludunak ad-


IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
Pentsuak Biona BANATZAILEA
San Pedro 3 Tf. 76 23 79

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 76 10 57

IGARO
✔ Kosmetika eta oparigaiak
✔ Eder gela
✔ Bio Solariunma
Barrenkala 35 Tf.: 76 17 27

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 76 56 62

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 76 55 00

ministratibo lanak egingo lituzke. 907 94 06 67.

Neska batek orduka lan egingo luke. 939 47 2584.

Neska batek zaharrak zaindu (gauez ere bai) eta garbiketa lanak egingo lituzke (orduka). 76 58 10 (Maria Jesus).

**Eskaerak**

Haur bat zaintzeko emakume euskalduna behar da. 76 35 11.

Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta elbarritu bat zaintzeko. 76 53 13 (zure datuak kontestadorean laga ditzakezu).

Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. 76 05 53.

Antzuolan, gaisorik dauden bi pertsona edadetu zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da (egun osoz). 76 61 85.

## 5. IRAKASKUNTZA

**Eskaintzak**

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditut LOGSE 2 arte. 76 24 31.

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu.76 70 40.

Fisika, informatika eta mate klaseak. 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. 76 33 26.

Pintura eta marrazki klaseak ematen dira. 76 03 83.

**Eskaerak**

Ingeles klaseak jasoko nituzke bertakoa den batengandik. 76 38 71 (Larraitz).

Frantses irakaslea behar da. 76 06 87.

## 6. AUTOAK/MOTOAK

**Saldu**

Aprilia rally motorra (49 c.c.) salgai. 76 62 24.

Audi 90 kotxea salgai. 1988koa. 76 35 09.

Ford Escort kotxea egoera onean salgai. ZA-F. 76 09 85.

## 7. ANIMALIAK

**Saldu/Eman**

Lau txakurkuma oparitzen ditut. 76 55 52.

Setter ingeles arrazako lau txakurkume salgai. Abenduaren 19an jaioak. 76 51 38 (Joseba).

## 8. DENETARIK

**Saldu**

Logela berria salgai: bi ohe, ikasketa mahaia, liburu apalak, altzari txikiak. Deitu 76 43 37 telefonora.

Karro-denda salgai. 76 59 56 (gauez).

Denda baterako moduko apala, mostradorea, euskarria eta makina-errejistradora prezio onean salgai. Deitu 76 25 67 telefonora.

Gasteizera egunero joan-etorria egiteko, kotxea konpartitzeko jendea behar da. Deitu 76 12 97 telefonora (Antonia).

Gazteentzako altzariak saltzen ditut. 20.000 pezeta. Deitu 76 30 93 telefonora.

Altzariak prezio onean salgai. Aukera ederra. Deitu 76 30 93 telefonora.

Frigorifikoa salgai, 125 v. 50 litroko termo elektrikoa. Deitu 76 47 71 telefonora.

Belaunerainoko katiuskak saltzen ditut. 76 53 16.

**Erosi**

Ibertreneko materiala erosiko nuke. 76 03 72.

**Galdu**

Zilarrezko pultsera galdu nuen Ipintza Institutuko patioan. 76 27 51.

Norbaitek forro polarra aldatu dit. Nirea marroia da (dibujoekin) eta berea urdina dibujoekin. 76 19 29.

Katu siemesa (emea) galdu da Bolun. Kollarra dauka txintxilin batekin. 76 09 12.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

**Langai Udaletxean**: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

***PLANEATZAILE TANGENTZIALERAKO***

- ALE (ETT) batek Deba Beherako Planeatzaile tangentzial baterako langilea behar du.

**Baldintzak**

- Planeatzaile tangentzialetan esperientzia izatea.
- Urteko soldata gordina: 2.000.000 PTA inguru.
- Erref. 5764/4

***TEKNIKO KOMERTZIAL INFORMATIKOA***

- Arabako lautadako enpresa batek Tekniko Komertzial Informatikoa behar du.

**Baldintzak**

- Gasteizen edo inguruko eskualdeetan bizitzea.
- Informatika ezagutza zabala, bereziki sare eta inprimagailuena
- Talde-lanerako gaitasuna.
- Aldi bateko lan kontratua hasiera batean, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Urteko soldata gordina eta pizgarriak, aztertzekoak.
- Erref. 6321/2

***PROGRAMATZAILEA***

- ALE (ETT) batek Arabako lautadako enpresa batek Programatzailea behar du.

**Baldintzak**

- Arabako lautadan edo inguruetako eskualderen batean bizitzea.
- Urtebeteko esperientzia programatzaile lanetan.
- Urteko soldata gordina, 1.800.000 PTA inguru.
- C++ko erdi mailako ezagutza.
- SQLko erdi mailako ezagutza.
- MS-Cko erdi mailako ezagutza.
- Erref. 5994/1

Matxiategi Elektragintza C.B.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Fleming 5 ☎ 76 19 94

LOS CAZADORES TABERNA
Zubieta 26
☎ 76 48 08
Goizeko 7etatik zabalik
gosariak plater konbinatuak pintxoak pizzak

IRURAK PINTURAK O.E.
ERA GUZTIETAKO LANAK · PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA · HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA · IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 76 09 32

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77

Gaskide, S.L.
ITURGINTZA OROKORRA
GASA ETA KALEFAKZIOA
☎ 76 49 00
HELBIDE BERRIA:
Aritzetako San Migel 8-10
BERGARA

Estatuko eta nazioarte mailako era ezberdinetako taldeak etorriko dira

# Txotxongiloen IV. Nazioarteko Mostra apirilean

**Txotxongiloen IV. Nazioarteko Mostra antolatzeko lanean jo eta su ari dira Taun-Taun taldekoak. Apirilaren 23tik 26ra bitartean antolatuko da eta era guztietako txotxongilo lanak erakutsiko dira. Kaleko eta barruko emanaldiak izango dira.**

Estatutik eta nazioartetik etorritako hamar bat talde izango dira eta Novedades aretoan, Kartzela Zaharrean eta Pol-Pol tabernetan izango dira emanaldiak. Kale emanaldiak ere izango dira eta aurreko edizioetan egin zuten moduan, musika emanaldiak ere tartekatuko dira egitaraua osatzeko.

Bestalde, Txotxongiloen IV. Nazioarteko Mostran Mikel Diez txotxongilo egilea zenari omenaldia eskainiko zaio. Mikel Diez bergararra Zugarramurdiko Kilimiliklik taldeko kidea zen eta Bilboko Kukubiltxo taldearekin ere ibili zen lanean. Bi taldeotan berak egindako lanak eta erabilitako teknikak erakutsiko dira Kultur Etxean mostrak irauten duen egunetan. Mostra Galeseko Green Gingert taldeak zabalduko du kale emanaldi batekin eta, aldi berean, Kultur Etxean erakusketa zabalduko da.


Argentinako El Chonchon.

Besteak beste, honako talde hauek ikusi ahal izango ditugu: Malagako Espejo Negro, Galiziako Caos, Argentinako El Chonchon, Bilboko Tenderete edota Kataluniako La Conica Laconica, La Fanfarra, Pepe Otal eta Jordi Bertran.

Taun-Taunek bi urtetik behin antolatzen du txotxongiloen mostra, baina hiru urte badira azkenengo aldiz antolatu zutenetik. Iaz antolatzekotan ziren, baina Brasilen hainbat emanaldi eskaintzeko aukera zutela eta, bertan behera geratu zen. Aurtengo edizioko aurrekontua lau milioi pezetatik gorakoa da eta Udalak egingo dio aurre presupuestoari.

Antolatzaileek sarreren prezioak ez dituzte zehaztu oraindik, baina emanaldi guztietarako bonoak ateraz gero askoz ere merkeagoa irtetzen dela aurreratu dute; bestalde, gazteentzako eta langabezian daudenentzako prezio bereziak jarriko dituzte. B

## Pazkuetako rock kontzertuetarako bi milioi eta erdi emango ditu Udalak

**Pazkuetan** Bideberrin antolatzen diren rock kontzertuetarako bi milioi eta erdi pezeta inguru emango ditu Udalak aurten. Ohikoa den moduan eguakitz, zapatu eta astelehenean antolatuko dira. Herriko gazte talde batek lanari ekin dio dagoeneko; joan zen astean bildu ziren lehen aldiz Kultura Batzordearekin eta datorren martitzenerako beste bilera baterako deia zabaldu dute. Asmoa ahalik eta jende gehienek parte hartzea da Pazkuetan etorriko diren taldeen aukeraketan. Bestalde, urtean zehar rock kontzertuak antolatzeko beste bi milioi eta erdi emango ditu Udalak. B

## Mikel Erentxunek eta Bad Religion taldeak Jamen entsaiatuko dute

Mikel Erentxunek eta Bad Religion amerikarrek udaberritik aurrera hasiko duten zuzeneko emanaldiak entsaiatuko dituzte martxoan eta apirilean Jam aretoan. Mikel Erentxunek "Acrobatas" diskoa merkaturatu berri du eta zuzeneko emanaldiei ekin aurretik Bergaran entsaiatuko du martxoaren 9tik 13ra bitartean. Bestalde, Bad Religion amerikarrek Europan zehar egingo duten zuzeneko emanaldiak entsaiatuko dituzte apirilaren 2 eta 3an Jamen. Esan dezagun, bestalde, Soziedad Alkoholikak eta El ultimo ke zierre taldeek martxoaren 14an joko dutela Jam aretoan. B

Kizkur
Ileapaindegia
Solariuma
Bolu 51 Tf. 76 50 32

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 76 13 29

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkalea 21 BERGARA

Siaska
Dena zure haurrarentzako
San Pedro 10 Tf. 76 10 39

kronika

# Orkesta eta Banda bat eginik

## Mikel Vicenteren aldeko Aratuzteetako kontzertua

**Domeka eguerdian jende ugari bildu zen Udal Pilotalekuan Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkesta Sinfonikoak elkarrekin eskaini zuten kontzertua ikusteko.**

Arrasateko Aita Menni ospitalean ingresatuta dagoen Mikel Vicenteren familiarentzat sosak biltzeko antolatutako Aratuzteetako emanaldia, bi musika taldeek elkarrekin eskaintzen zuten lehen kontzertua izan zen. Udal Frontoiaren behealdeko aulki guztiak bete ziren eta bertaratutakoek ordubeteko saio atsegina ikusteko aukera izan zuten.

Karnabalak izanda, erraz entzuteko errepertorioa aukeratu zuen okasiorako Alfredo Gonzalez Chirlaquek, bi musika taldeetako zuzendariak: Amparito roca pasodoblea, El lago de los cisnes ospetsuko ballet suitea, Memorias de Africa filmeko soinu banda eta Frank Sinatraren emanaldien aukeraketa bat. Guztiak pieza ezagun eta ospetsuak, edozeinek entzuteko modukoak; kontzertu alaia, azkarra eta koloretsua eskaini zuten.

Ustekabe atseginendako tokia ere izan zen: amaiera aldera, ballet parisien piezaren doinuak jarraituz dantza saio ederra eskaini zuten sei bikotek.

Bergarako Orkesta Sinfonikoa Pazkuetarako Evita musikala prestatzen ari da. Orkestak ez ezik, herriko hainbat abeslari eta abesbatzek ere parte hartuko du ikuskizunean. Alfredo Gonzalez Chirlaquek partiturak prestatzeari ekin dio. Jaialdia Pazkuetako eguakitz gauean izango da Udal Pilotalekuan. B


Bergarako Orkesta Sinfonikoak eta Udal Musika Bandak elkarrekin eskaini zuten kontzertua.

erreseinak



Hainbat erakunde
***Goierri mendiz mendi***
Gida

Goierriko eskualdea osatzen duten herri bakoitzeko eta eremu naturaletako (Aralar eta Aitzgorri) ibilbiderik adierazgarrienak deskribatzen dira gida honetan. Guztira 53 ibilbide dira eta hauen perfila, deskribapena eta interesguneak, hauen azalpen labur eta guzti, agertzen dira. Bi dira argitalpenaren helburuak: alde batetik, goierritarrei, normalean herri bertatik abiatuta, nekazaritza mundua eta bere ingurua ezagutzeko aukera eskaini; eta, bestetik, herriguneetatik aparte dauden ibilbideak jaso. Liburuaren azken orrietan 53 ibilbideren mapa eta ibilbidea markatuta aurkituko dituzue.

*- 197 orr. 2.500 PTA*




Argia
***Argia-ko elkarrizketak***
CD-Rom

Argia astekariak 1963-96 tartean astekarian argitaratutako elkarrizketak bildu ditu CD-Rom batean. Etorkizunerako dokumentu interesgarria izan daiteke, euskalgintzaren historiako altxorra. Zeruko Argian eta Argian 34 urtetan egindako 5.000 elkarrizketa baino gehiago jasotzen dira, irudi eta guzti. Harpidedunentzat edizio berezia kaleratu da eta agortu arte (gehienez martxoaren 15era arte) 2.800 pezetan jarriko dute salgai. Promozio hau bukatutakoan 9.000 pezetan salduko da kalean.

*- Argia. 2.800 PTA*

*Datorren astetik aurrera*
*UDABERRI-UDA*
*denboraldiaren hasiera*

Janden

Eta orain
*52ra arte!*
taila
haundiak

*Gazte eta emakumeendako jantzi eta osagarriak*
Irizar 1, BERGARA. Tf. 76 20 03

Garnish
***Bitxitegia***
**San Pedro 12 ☎ 76 03 57**

## denborapasa / LUMA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

### Ezker eskuma

1. Hautatu dezaketenak. 2. Komunikabide bat. Oriaren erdian. 3. Musika nota. Pl., jezarleku mota. 4. Karta-joko. Bizkaiko herria. Baldintzetan. 5. Zikin. Frantziako hegazkinetan. 6. Bokala. Giza gorputza apaintzeko prozedura. 7. Aurrizkia. Errep., zuzen. Erbioa. 8. Bizkaiko ibaia. ...danez, dirudienez. Kanpo. 9. Kiskali. 1996an. Bokala. 10. Abere adarduna. Ezezta.

### Goitik behera

1. Erailea. 2. Legea. Galdetzaile mota. 3. $H_2O$. Leherkari mota. Areago. 4. Hesolak. Alderantziz, musika nota. 5. Juntagailua. Sarrera. Rötngen. 6. Burdin metalak lortzeko tratamendua. 7. Lurrari bira emateko tresna. Bokala. Kasik. 8. Bokala. Kontsonantea. Biharamona. Zaren hori. 9. Arabiako hizkuntza. Potasioa. 10. Katilu txiki. Infusio mota.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

*1. Hutesleak. 2. Irratia. Ri. 3. La. Kadirak. 4. Tute. Ea. Ba. 5. Zantar. AIR. 6. A. Tatuajea. 7. Iz. Ker. Er. 8. Lea. Agi. At. 9. Erre. Iaz. E. 10. Akerra. Uka.*

*Goitik behera*

*1. Hiltzailea. 2. Araua. Zerk. 3. Ur. TNT. Are. 4. Taketak. eR. 5. Eta. Atea. R. 6. Siderurgia. 7. Laia. A. Ia. 8. E. R. Aje. Zu. 9. Arabiera. K. 10. Kikara. Tea.*

## bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Zein da San Esteban ermitaren aurrean dagoen baserri honen izena?***

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauek zuzen erantzuteko gauza zaren!**

1. Zenbat urte bete ditu Lazpiur enpresak?
A- 50
B- 35
C- 25

2. Taun-Taunek txotxongiloen zenbagarren mostra antolatuko du?
A- IV.a
B- XX.a
C- VI.a

3. Zenbat tantu egin zituzten Etxanizek eta Elkorok zapatuko finalean?
A- 21
B- 20
C- 18

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Zubi-Berri** jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Irene Santamaria**rentzat izan da: Txuringo jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Ireneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Telesforo Maria de Monzon**. Galde Debalde: **1-C, 2-B, 3-A**.

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** *1:* *2:* *3:*

Izena-deitura: Telefonoa:

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

ZUBI-BERRI
JATETXEA
San Anton auzoa
Tf. 76 30 24.

**Oñatin eta Bilbon Enpresaritza ikasketak bukatu ondoren, Mapfre aseguru etxeko bulegoan lanean ari da Tere Garmendia. Dagoeneko bost urte egin ditu bertan lanean. Umore onez erantzun dio ondoko galdetegiari.**

# Teresa Garmendia



**Zein aseguru mota duzu kotxean?**
Arrisku orotarakoa. Asegururik konpletoena da eta, gainera, nire kotxea ez da oso zaharra.
**Bezeroen artean, gizonak ala emakumeak nagusi?**
Gizonak.
**Pentsio planik egingo zenuke?**
Bai, eginda daukat.
**Etorkizuna zein kolorekoa ikusten duzu?**
Berdea. Itxaropenekoa.
**Laneko gauzarik gorrotagarriena?**
Arazoren bat sortzen denean, jendeari kontratatuta duen aseguroa ondo argitzea.
**Eta atseginena?**
Jendearekin tratua.
**Lanerako beharrezko kualitatea?**
Pazientzia.
**Ikasle ona izan zara?**
Normala.
**Zer izan nahi zenuen txikitan?**
Erizaina.
**Interneta erabiltzen duzu?**
Ez.
**Karnabalak ospatu dituzu?**
Zapatuan ez baina martitzenean mozorrotuko naiz beharbada.
**Pendiente daukazun disfraza?**
Pailazoarena.
**Garizuma betetzen duzu?**
Ostiraletan arraina..., etxeko ohituragatik.
**Sagardotegian izan zara aurten?**
Bai. Fenomeno pasatu genuen.
**Gustoko janari bat?**
Pastelak, gauza goxoak.
**Zer da besteengan gehien apreziatzen duzuna?**
Fideltasuna.
**Zure bertute bat?**
Nik esatea gaizki dago...
**Eta defektu bat?**
Oso nerbiosa naizela.
**Umore onekoa zara?**
Bai.
**Zerekin egiten duzu barre?**
Gauza normalekin, lagunarteko txantxekin.
**Hobby bat?**
Zinea eta antzerkia.
**Zelako filmeak atsegin zaizkizu?**
Misteriozkoak, Hitchcock-enak.
**Aktore bat?**
Paul Newman.
**Musika talde bat?**
10.000 maniacs.
**Jantzi bat?**
Jertsea.
**Bidaia bat nora egingo zenuke?**
Puff!! Nora ez? Txinara adibidez.
**Zapatuko pilota finala ikusi zenuen?**
Bai, telebistatik. B

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
*Gozogintzan aintzindari.*

ARATUZTEAK 98


ZATOZ
Nahikarin
ateratako
argazkiak
IKUSTERA
NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 76 57 71

LAGUN ARO
ASEGURUAK
RAC
VASCO NAVARRO
AGENTEA-DELEGATUA
Ramon Iraegi Eguren
*Ramon Maria Lili 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)*
*Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54*
*ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00*
*Larunbatetan: 9.00-13.00*



# *Los hermanos Lazkano, 1950*

Plazako dantzaldietan gero eta jende gutxiago biltzen da, gaur egun jendeak nahiago duelako tabernaz taberna ibili. Sasoi batean, ordea, dantzaldi eta erromerietan bakarrik izaten zen musika entzun eta dantzatzeko aukera.

Gaur egun Egan, Lisker edota Ibaiak taldeak plazarik plaza eta ezkontza bazkarietan aritzen diren moduan, sasoi batean oso ezagunak ziren Lazkano anaiak. Erromeria eta ezkontza bazkariak ez ezik, Verdury Hall-eko dantzaldiak ere alaitzen zituzten.

Honako hauek dira Los hermanos Lazkano izenarekin ezagutzen ziren lau musikarien izenak, goitik hasita eta ezkerretik eskumara: Vicente Lazkano, Fernando Lazkano, Ignacio Gonzalez (hirurak soinua eskuetan dutela) eta Jose Mari Sasieta (jazbana joten).

*Argazkia:* Jose Mari Sasieta

**OHARRA**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!










# Hello friends!
# This is Michael Morris, an English teacher.

Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.

Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.

## Connecting Basques and the world.




Euskara-Ingelesa
Ingelesa-Euskara
**Hiztegia:**

- 1.200 orri
- 80.000 hitz eta adiera
- Eranskin gramatikal zabala
- Irudiak, mapak eta bestelako ikasmateriala
- Ingalaterrako nahiz EEBBetako ingelesa ahoskatzeko gidak

**1. alearekin tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. + Egunkaria**

MIGUEL ALTUNA ETA IPINTZA INSTITUTUAK

# BERGARAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

*D eta B eredu*
*euskaldunak*

*1. zikloa: 12-14 urte*
*2. zikloa: 14-16 urte*

**ETOR ZAITEZTE MATRIKULATZERA GURE IKASTETXERA MARTXOAREN 11ra ARTE**
Helbidea: Boni Laskurain 17. Tf. 76 20 82 - 76 07 08.
Ordutegia: goizez, 9:00-13:00; arratsaldez, 14:30-16:30.

*BALIABIDEAK*

- *Gela berezia*
  - *Teknologia.*
  - *Informatika.*
  - *Adierazpen artistikoa.*
  - *Ikus-entzutekoa.*
- *Laguntza gelak.*
- *Elbarrituentzat egokitutako eraikina.*
- *Aniztasun trataera.*

*AUKERAKOEN ESKAINTZA ZABALA*

- *Alemana eta frantsesa.*
- *Informatika.*
- *Tailerrak: Osasuna. Elikadura. Komunikabideak. Matematika. Asmakizunak. Bertsolaritza. Ikerketa. Prentsa tailerra. Eta abar.*

*ZERBITZUAK*

- *Garraioa dohainik.*
- *Jantoki subentzionatua.*
- *Orientazio departamendua.*
- *Pedagogia Terapeutikoa*

## GURE HEZKUNTZ PROIEKTUA:

INTEGRALA, EUSKALDUNA, BATERATUA, ANITZA, DOANEKOA, GURASOEN PARTAIDETZA

